

Anari kantaria

'Zebra' aurkeztu zuen zapatuan Oñatin

22KULTURA, 00



Jone Muxika 2. Quebrantahuesos-en

Elgetarrak 6:53:42 behar izan zuen proba amaitzeko

KIROLA, 19

Txotxongilo Mostra

Harrera ezin hobea izan du aurten er

KULTURA, 20-21



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko ekainaren 19a • 3. urtea • 106. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

Esan zuten, garbitu zuten metro karratuko zabor poltsa handi bat bete zitekeen hondakinekin.

Zaborra besterik ez zuten aurkitu ibaian

Deba ibaiaren zati bat garbitu zuten atzo Arrasaten

GARBITZAILEAK HARRITUTA

Guraso eta neska-mutikoak "harritu" egin ziren jaso zuten plastiko kopuruarekin

ZABORRA LAUBIDERA

Ibaia zer-nolako egoeran dagoen ikusteko, atzo jasotako zaborra Laubide plazan ipiniko dute ikusgai, pisatu ostean

Tadessek ez zuen egin errekorrik

Eritrearrak 27:54an egin zituen Oñatiko 10.000 metroak **12-13**

Gorka Agirrek eroan du San Antonio saria

Azpeitiarrak azken minutuan hartu zuen aurrea **15**

Gelmako auziak ezinegona piztu du Arrasaten

4

Erabilitako etxeen prezioak goia jo du, adituen esanetan

Azken hamar urteetako garapena aztertu eta epe horretan erabilitako etxebizitzaren prezioak gora egiteari utzi diola eman du aditzera Garaia etxe agentziak. Joera hori joandako seihilekoan egin da nabarmen, artekaritza enpresaren datuen argitara, eta zehazki, Leintz ibarrean metro koadroaren prezioa 3.155 eurotan dago egun. Bergarako eta Oñatiko batez bestekoak ere antzerakoak dira. Jendea dagoeneko ez ei dago etxebizitza edozein prezioetara erosteko prest. Interes tipoen igorak ere badu zerikusia. **7**

Nazio Garapen Biltzarra

Etzi Bergaran egingo duten mintegi irekirako dei egin dute **7**

SUPER AMARA

DENA GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea,18 Bezeroentzako Aparkalekua

GEUREAN

- Gaur zabalduko dute epea Bergaran San Martzialerako mahaiak hartzeko | 8
- Ezingo da etxeko urik edan Aramaioko Ibarra auzoan hilaren 26ra arte | 8



Arantza
Agirrerekin bizitza
independenteari
buruzko berba egin
dugu | 5

DEBA IBAIA GARBITZEN



Neska-mutikoak pozik geratu ziren atzo batutako zabor kopuru handiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

INGURUMENA | ARRASATEKO EROSKI OSTEKO IBAI BAZTERRAK GARBITU ZITUZTEN ATZO

Plastiko kopuru "ikaragarriak" harritu egin zituen garbitzaileak

Atzo batutakoa pisatu eta erakusgai ipiniko dute gaur Laubide plazan, ibaiak zer-nolako egoeran dauden jabetzeko; metro bakoitzeko zabor poltsa bete zutela kalkulatzeko dute

Jon Berezibar

Arrasaten, Aste Berdearen azken ekintza moduan, Eroski osteko ibai bazterrak garbitu zituzten hainbat guraso eta neska-mutikok. Eskuzorroak jantzita eta sasi artean, goizeko hamar eta erdietatik eguerdira arte ibili ziren ibaiko plastiko eta zaborrak kentzen. Bildu zuten zaborra Laubide plazan egongo da ikusgai,

gaur, kontzientziazio-ekimen moduan. Esan zutenek, garbitu zuten metro bakoitzeko poltsa bat bete ahal izan zuten.

Harrituta zeuden guraso eta seme-alabak, holako eremu txikian hainbeste zabor topatuta. Musakolako ermitako zubian hasi eta merkataritza zentroko atzealderaino ibili ziren garbitzen, hiru taldetan. Plastiko kopuru "ikaragarriekin" egin

zuten topo, guraso batek hala kontatuta. Antza, jende askok merkataritza zentroan askaria-ero eosi eta parkera etortzen dira jatera, eta gero zabor guztia lurrera bota", azaltzen du ama batek, hark betetako hiru-garren poltsa eskuetan duela. "Plastikoak 400 urteraino iraun dezake biodegradatzen hasteke, eta ibaiak beteta dago", dio beste guraso batek.

GARBITUTAKO METRO BAKOITZEKO, POLTSA BETE

Horrek dakarren kalteaz jabetzeko Laubide plazan ipini dituzte gaur poltsa guztiak erakusgai, Eroskiko pisuan pisatu ostean. Hasierako asmoa zaborra birziklatzera eramatea zela dio Nerea Lazpiurrek, antolatzailetako

batek, baina "hain zikin daude hondakinak, alferrik litzateke". Kontuak egiten hasita, eta batutako zabor kopuruan zeuden ere-

Guraso eta neska-mutikoak harrituta zeuden jasotako zabor kopuruarekin

Arropa eta oihal asko aurkitu zituzten atzo plastiko eta edukiontzien artean

mu txikirako asko zela ikusita neurtzen hasi ziren. Horrela, Eroski atzean garbitutako hamabost bat metroetan bakarrik, 15 zabor poltsa handi bete ahal izan zituzten atzo.

Zabor hori, gainera, sasi artean zegoen askotan, batzeko oso zail, eta ez zuten izerdi gutxi egin behar izan garbitzaileek ahalik eta hondakin gehien jasotzeko. Plastikoa izan zen batez ere, baina arropa eta oihal ugari ere topatu zituzten. Aurkikuntza bitxiagorik ere egon zen: komun batekin egin zuten topo eta orain dela gutxi, auzoko jaietan, parkean dagoen astoari ipini zioten lastozko koroatzarra, mota eta garai guztietako pote eta edukiontzien artean. Guztiak Laubide plazan daude gaur ikusgai.

DEBA IBAIA GARBITZEN

NEREA LAZPIUR | UDAL TEKNIKARIA

"Zikinenetakoa da Deba ibaia, zikinena ez bada"

Erreka garbitzea baino, umeak sentsibilizazio ekimena izan dela azaldu zigun Nereak. Erreka gertutik horren zikin ikustea eraginkorra ei da.



J. B.

Aste Berdearen azken ekintza izan da ibaia garbitzea, ezta

Urtero gai bat aukeratzen da eta aurtengoan bioaniztasuna izan da. Gai horri helduta, ibaieran eta, oro har, kontserbazioan hainbat lan jardura egiten ibili gara. Aurreko domekan, adibidez, irteera egin genuen ibaien bioaniztasuna ikusteko eta hori ikusita egoki iruditu zitzaigun ibaien garbiketa egitea, jardura osagarri moduan. **Garbitzea baino, kontzientzia-zioaren bila joango zarete gehiago halako egunekin.**

Azken finean, guk ibai zati bat besterik ez dugu garbitu. Hori aukeratu dugu umeak erraz ibil daitezkeelako ibai bazterrean, baina gure helburua sentsibilizazioa da, noski. Ur-handiren bat etorriz gero, ibaian gora dauden plastikozko guztiak ekarriko ditu; beraz, ez da garbiketa kontua –egiten dena beti dago ondo–, sentsibilizazioa baizik. Ibaiaren errealitatea gertutik ikusteko balio du eta zer zabor mota aurkitzen den han. Holako eremu txiki baten zenbat zabor sor daitekeen ikustea da asmoa.

Hain zikin dago?

Lehengo egunean argazkiak ateratzera joan eta denetik aurkitu genuen: arropa, zartaginak, plastikozko poltsak, brikak, botilak... Ibai bazterretan edozer aurki daiteke, baita oso aspaldiko zaborra ere.

Hori, lantegien kutsadura kontatu barik.

Oso zikin dago bestela ere. Deba ibaia, Erkidegotik zikinena ez bada, zikinenetakoa izango da. Uren kalitatearen mapetan gurea gorri-gorritz markatuta agertzen da. Ura

berez zikin badago, zer esanik ez bazterretan aurki daitezkeen zaborrez. Egia da gauzak aldatu direla, lehen etxeetatik zuzenean botatzen zen ibaira zaborra, baina oraindik ere zikinkeria handia dago. Kaleran, jendeak zaborra lurrera botatzen du eta haize pixka bat ibilita, ibaira doa zabor guztia. Kaleko zabor guztiak, beraz, ibaian bukatzen du.

Haurrengan eragiteko ahalegin berezia egiten da, ezta?

Zalantzarik ez dago kontzientziazioa haur eta nagusien lana dela. Izan ere, herritar guztiei egiten diegu guk deialdia: eskoletara jo dugu, gurasoengana, Besaidekoekin ibili gara elkarlanean... Era berean, umeei irakatsi egin behar zaie.

"Denetarik aurkitzen da: arropa, botilak, brikak..."

"Garbiketa baino sentsibilizazioa da asmoa, oso eremu txikiko zikinkeria ikustea"

• ZER MOTATAKO ZIKINKERIA AURKITU DUZUE IBAI BAZTERREAN?



OLAIA ETA IRATI

"Ordubete ere ez dugu egin eta dagoeneko hiru poltsa handi bete ditugu zaborrekin, hondakin asko dago"

Musakolako parkean, zubi ondoan ibili ziren bi neskatok zaborra biltzen. Harrituta zeuden denbora laburrean pilatutako hondakin kopuruarekin: "Oso zikin dago ibai bazterra, ez dago ezkin zaborrik ez duenik. Ordubete ere ez daramagu garbitzen eta dagoeneko bi poltsa handi osorik bete ditugu bion artean". Lixarreria poltsatxoak eta, oro har, plastikoa aurkitu zituzten.



MIKEL ETA ANDONI

"Auzoko jaietan astoaren eskulturari ipini zioten lastozko koroa ere aurkitu dugu erreka bazterreko zaborretan"

Denetarik sartu zuten zabor poltsetan bi mutikok: plastikoa, poteak, poltsak eta arropa piloa, kontaktu zigutenez. "Ibai bazterrean Musakolako astoaren eskulturari jaietan ipini zioten lastozko koroa ere aurkitu dugu", azaltzen dute, "eta baita ere erdi apurtuta zegoen komun bat". "Oso zikina da jendea eta gehienbat erosketarako poltsak aurkitu ditugu".



MAIDER, GAIZKA, NEREA ETA ANDONI

"Kontuak aterata esan dezakegu garbitu dugun metro bakoitzeko poltsa bat bete dugula; atera kontuak orduan, 15 metro besterik ez dugu egin eta!"

Kalkuluak egin eta metro bakoitzeko zabor poltsa bat bete zutela esan ziguten gaztetxoek. Gasolina poteak, arropa, poltsak... Zur eta lur zeuden jasotako kopuruarekin. Maiderrek zioenez, gasolinarekin ez zikintzeko erabiltzen diren plastikozko eskuzorro ugari zeuden erreka bazterrean.

Gaztetxoak kekatzen ziren sastar asko ezin zutela kendu lurrean edo satsitan sartuta zegoelako eta ezinezkoa ei zitzaizen handik kentzea. Oztopoak oztopo, fin ibili ziren neska-mutikoak zabor pilaketan eta poltsa piloa betetzea lortu zuten azkenean.

• EREMU TXIKI BATEN JASOTAKO ZABOR KOPURUA EZ ZEN MAKALA IZAN



BAZTER ZAILAK. Zabor asko txoko zailetan sartuta zegoen, sus-trai eta sasi artean. Babesteko eskularruak hartuta ibai bazterrean ondo sartu behar izan zuten garbitzaileek aspaldi pilatutako zaborrak ateratzeko; plastikoa zen batez ere.



ARROPA. Arropa eta oihal ugari aurkitu zituzten garbitzen zebiltzala. Plastikoa ondoren, oihala izan zen gehien aurkitutako zabor mota.



KAMIONETA BETETA. Poltsetan batu eta kamioneta horretan ipini zuten bildutako zaborra. Gaur goizean Eroskiko pisuan pisatuko dute eta hortik Laubide plazara eramango dituzte poltsak, horrela, jendaurrean erakusteko.

Zentsura mozio baten aurrean egon liteke Arrasateko alkate Lakuntza

Ines Aldai EAJko zinegotziak Gelmako etxebizitzaren harira egindako salaketek areagotu egin dute asteburuan aurretik herrian zegoen ezinegona

Monika Belastegi

Arrasateko Udaleko Ezker Batuak ordezkariek Ignazio Lakuntzaren kontrako zentsura mozioa aurkeztea proposatu zieten zapatuan gainerako udal taldeei, "irregularitasun urbanistikoengatik". Ines Aldai, EAJko zinegotziak, barikuan egindako salaketen ondoren etorri da Ezker Batuaren proposamena: "Hiru urte darabagu Gelmako etxebizitzaren gainean irregularitasunok salatzen, bakarrik, baina egubakoitzean, Lakuntzaren taldeko Ines Aldai zinegotziak eginiko adierazpenek berretsi egin dute gure salaketa".

INES ALDAIREN SALAKETA

Ines Aldai EAJko zinegotziak Lakuntza alkatea, Hirigintza zinegotzi Agustin Ugarte eta Jose Mari Loiti alkate ohia -guztiak bere alderdikoak- "hirigintza operazio sinestezin" batean murgilduta daudela salatu zuen barikuan.

Gelma lantegia zegoen orubean eraikiko diren 418 etxebizitzaren operazioan salatu ditu irregularitasunok Aldaik -bere udal taldeko beste hiru zinegotziren sostengua ere ba ei du-. Haren esanetan, operazioarekin "60 milioi euroko plusbalia jasoko du Oberreka promotoreak, Udalarendako kontraprestaziorik gabe".

2003ko Hirigintza Antolamendurako Egitamu Orokorrak jasotzen zenez, Gelmaren orubean babestutako 212 etxebizitza eta 177 libre eraikiko ziren. Baina 2004an, Udalak eta Javier Guilbertek, Gelma lantegiko jabeak, hitzarmena sinatu zuten enpresa orain dagoen lekura eroan eta lagatako orubea birkalkifikatzeko. Era berean, 293 etxebizitza libre eta babestutako 125 eraikiko zirela adostu zuten, Aldaik azaldutakoaren arabera. Horrekin batera, Gelma Arrasaten geratuko zela ere bermatu nahi zuten. Hirigintza hitzarmen haren alde Udalean ordezkari zuten alderdi guztiek egin zuten, EBk izan ezik. Bestalde, negoziazioan Loiti alkate ohia jardun zuen, "Guilberten lagun mina", Aldairen hitzetan, eta gehitzen zuten hitzarmena onartu zela "alkateak eta Hirigintza zinegotziak bakarrik ikusita txosten ekonomikoa".

Txosten horri dagokionez, Aldaik azaldu zuten "sortutako



Ez ei dago bermatuta Aldairen esanetan Gameik herrian jaraituko duenik.

plusbalia 24 milioikoa" zela, eta 30.000 metro koadroetan eraikiko ziren etxebizitza libreen metro koadroaren salmenta prezioa 2.175 eurokoa". Baina aurtengo otsailan, etxebizitzaren salmenta prezioak publiko egin zirenean, zerbait arraroa sumatu zuten herritarrek, bi urtean 6.000 eurora igo baitzen metro koadroa.

ZENTSURA MOZIOA

Horren guztiaren aurrean "zentsura mozioa berehala aurkeztea" ezinbestekotzak jo du Ezker Batuak, "alkatea kaleratua izan dadin eta Hirigintza zinegotzia ordezkaturik". Ezker Batuak uste du neurri hori ezinbestekoa dela "Udala bere onera ekartzeko" eta promozio inmobiliarioaren txostena Herri Kontuen Euskal Epaitegira eta ustelkeriaren kontrako Fiskaltzara bidaliko dituela. Bestalde, gogora ekarri du "2004ko martxoan hitzarmenaren kontra bozkatu zuen talde bakarra" izan zela, "txosten tekniko

eta ekonomikorik ez zegoelako", besteak beste.

ALDERDIEN IRITZIAK

Xabier Zubizarreta, Herri Anitzaren ordezkaria, ez da "batere harritu hau iritetean", eta "oso gestio txar eta arduragabe baten emaitza" dela dio. Guztiaren giltza "2003ko legegintzaldi bukaeran onartuta laga genuen Egitamu Orokorriari egin zizkioten aldaketak" direla dio. "Aldaketa arbera, Gelmari sekulako aprobeixamendua eman zitzaion: etxe libreak %45 izatetik %70 izatera pasatu ziren eta babestutakoak, %55 izatetik %30 izatera". Horixe da giltza, Zubizarretaren ustez, eta erantzuleak, berriz, "osoko bilkuretan aldaketa horien alde bozkatu zutenak, EAJ eta EA, bereziki". Horrekin batera gehitu du Udalaren gestio txarragatik "diru pila bat oparitu" zaiola partikular bati eta galdera bat ere egin du: "Diru hori zeren truke eman zaiot?"

Itziar Lamarain PPko zinegotziari dagokionez, Aldairen hitzek ezustean ez dutela harrapatu esan du. Aldai fidatzeko pertsona dela ere gehitu du eta salaketa horiek egin baditu dela frogak dituelako. Alkatearen dimisioa ere eskatu du Lamarainek.

Alderdi Sozialistako Paco Gartzia, berriz, ez du balorazioan sartu nahi izan, "gauzak ziurrago jakin aurretik". Hala ere, Gipuzku Buru Batzarri eskatu dio gauzak argi ditzala.

Bada, azken egunotako salaketen harira, Ignazio Lakuntza alkateak ez du adierazpen berririk egin nahi izan.

Arrasateko Euskalgintza pozik, taldea sendotu eta babes ona jaso duelako

Azken lau urteotako plan estrategikoa burututa, komunikazioa sendotu eta gizarteratze lana nabarmendu dituzte

Jon Berezibar

Arrasateko Euskalgintzaren Mahaiak urtean birritan egiten duen bilera izan zuten eguenean. Azken seihilekoan abiatutako ekintzak aztertu eta 2002an hasi eta aurtun amaituko den plan estrategikoaren balantzea egin zuten, eta urteko kontuak adostu.

Maiatzean egindako euskarazko ereduaren matrikulatzeko kanpaina -DBH eta batxilergoan-, errenta aitortpena euskaraz -oraindik indarrean- eta gazteekin egindako motibazio saioak izan dira urteko lehen erdiko ekintzetan esanguratsuenak. Orokorrean, egindako ekintzen balorazio positiboa

egiten du Euskalgintzak, baina bileran, plan estrategikoaren amaierak eta etorkizuneko erabakiek izan zuten pisu handien. Balorazio inkesta bat egin dute, partaide diren entitateen iritzia jasotzeko, eta jarraitu behar diren jarduerak jaso du haren laburpena. Bete gura izan diren helburuetatik, orokorrean, partaideen arteko komunikazio sare baten bidez harremana sendotzea izan da. Horrela, egoeraren ikuspegi osatuagoa lortu dute entitateek elkarrengandik. Ekimenak gauzatzeko orduan izandako babes bereziki azpimarratu gura izan zuten. Orain, abendura bitartean plan estrategiko berria diseinatzeko bileretan ibiliko dira.



Herriko 14 entitatek osatzen dute Arrasateko Euskalgintza.

• MANIFESTAZIOA OÑATIN



PRESOEN ESKUBIDEAK ALDARRIKATU ZITUZTEN

Ibaetako dokumentuarekin bat egiten duten hainbat herritarrek manifestazioa egin zuten zapatuan Oñatin. Beste behin aldarrikatu zituzten: presoek duten tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea, osasun eskubidea, komunikazio eskubidea, hizkuntza eskubidea, hezkuntza eskubidea, ama eta aitatasun eskubidea, askatasunerako eskubidea eta kolektibo gisa Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko duten eskubidea.

Aldundiak antolatutako Bizitza Independentearen Gaineko II. Jardunaldietan hartu du parte Arantzak egunotan Kursaalaren. Ezgaitua da, baina

bizitza independentea egin nahi zuen eta lortu egin du. Bere esperientzia kontatzera gonbidatu zuten jardunaldietara. Bergaran jaio zen duela 56 urte, baina Getarian bizi

da gaur egun senarrarekin eta 22 urteko semearekin. Muga arkitektonikoak oztopo handia dira berarendako, baina handiagoak pertsonen jarritako oztopo psikologikoak.

ARANTZA AGIRRE | BIZITZA INDEPENDENTEA MUGIMENDUKO KIDEA

"Gizartearen esparru guztietan guk geuk egin behar dugu gure lekua"

Monika Belastegi

Zer da bizitza independentea?

Pertsona ezgaituek gai direnek beste izan behar dute eskubide zibiletan, aukeretan, norberaren bizitza kontrolatzeko orduan... Pertsona guztiek izan behar lukete pentsatzeko, mintzatzeko eta erabakitze esku-bidea. Horixe da bizitza independentearen filosofia, baina nik horri beste gauza bi gehituko nizkioke: oso garrantzitsua da, batetik, pertsona independenteak izateko, ezgaituek ere euren ardurak euren gain hartzea, eta, bestetik, autonomo izateak bere arriskuak ere badakartzanez, bada, arrisku horiei aurre egiten jakitea.

Pertsona independentea zara zu, eta jardunaldietara hain justu zure esperientziaren berri emateko gonbidatu zintuzten.

Nire esperientzia esandako bi ezaugarri horietan-edo oinarrituta dago. Duela 30-35 urte ez zegoen ezgaituek bizitza independentea egin ahal izateko programarik eta nik neure ardurak hartu nituen independente egiteko.

Zure gurasoak saiatu ziren bizitza ahalik eta normalena egin zenezan.

Bai. Garai hartan, gainera, pentsatu ere ez zen egiten ezgaituendako laguntzarik egon zitekeenik; ezta laguntzarik eska zitekeenik ere.

Hala eta guztiz ere, gurasoek erakutsi zidaten txikitatik, ahal zen neurrian, behintzat, bizitza normala egiten. Hamalau hila-beterekin-edo diagnostikatu zidaten gaitza eta 11 urte nituenetik gurpildun aulkian nago.

Beste edozein ume bezala joan zinen eskolara.

Bai. Gainera, garai hartan ez zen integrazioaz berba egiten, ez zegoen eskola berezirik... Gainerako neska-mutikoekin egon nintzen eskolan, eta, egia esan, nahiko integratuta bizi izan nin-

tzen. Eskolako oroitzapen atsegina daukat. Uste dut hantxe hasi zela nire borroka eta familiak lagundu egin zidan horretan. Medio handirik gabe, baina gehiegi babestu beharrean ardurak hartzen erakutsi zidaten.

Eta noiz erabaki zenuen independentizatzea?

Gainerakoek baino beranduago egin nuen. Izan nuen garai bat, 14tik 20 urtera arte edo, nahiko txarra, garai hartan apenas egin nuen ezer. Baina gero, konturatu nintzen zerbait egin behar nuela eta horretarako ezinbestekoa nuela ikastea. Hori horrela, hasieran nire kontura ikasten eta azterketa libreetara aurkezten. Gero Bergarako UNEDen matrikulatu nintzen eta Psikologia ikasten hasi nintzen. Baina horretan nenbilela, Jaurlaritzaren euskara proba batera aurkeztu nintzen, gainditu, eta euskara eskolak ematen hasi nintzen.

Eta zer moduz irakasle hasi zinen?

Muga arkitektonikoez gain, psikologikoak ere aurkitu nituen; gurasoengandik, batez ere.

Orduan 28 bat urte zenituen eta garai hartan ezkondu ere egin zinen.

Bai, Psikologiako 3. maila bukatu eta ezkondu egin nintzen.

"Ezgaituok beti ibili behar dugu gai garela erakusten, gainerakoek ez bezala"

"Jendeak ez du pentsatzen bizitza independentea egin nahi dugunik ezta ahal dugunik ere"



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Eguren eta egubakoitzean Donostiako Kursaalaren egindako jardunaldietan bere esperientzia kontatu du Agirrek.

Orduan, iruditu zitzaidan familia bizitza egitea eta ikasketekin jarraitzea gehiegi zela eta Psikologia laga eta Irakasle ikasketei ekin nien. Gainera, ikasgai asko komunean zirenez, berehala bukatu nuen eta gero oposizioak egin nituen. Baina han ere oztopoak aurkitu nituen, legeak ez zuelako lagatzen ezgaituak funtzionario izaten, baina 1982ko Integrazio Legean oinarrituta aurrera egitea lortu nuen.

Zein dira zailtasun handienak?

Pertsonen oztopo psikologikoak. Gaitasuna duten pertso-

nak onartzen dira besterik gabe, baina ezgaituon kasuan beti ibili behar dugu gai garela erakusten.

Bagoaz hori gainditzeko?

Pixka bat, baina oraindik badago zer gainditu. Baina horretarako, gu geu, ezgaituok izan behar dugu gizartearen esparru guztietara iritsi eta "hemen nago" esan behar dugunak. Beste bat gehiago garela erakutsi behar dugunak.

Eta gizartea, oro har, kontziente da ezgaituek ere bizitza independentea egin nahi duzuela?

Ez. Jende gehienak uste dut planteatu ere ez duela egiten egin nahi dugunik ezta egin ahal dugunik ere.

Zu zeu zara horren adibide. Egin nahi eta egin daitekeela, hain justu.

Eta hori, inguruko jendeak badaki eta normal iruditzen zaio, baina jende gehienari ez.

Hori da erronka nagusietako bat, gizartea konturaztea?

Bai, baina horretarako, lehen esan bezala, gizartearen esparru guztietan guk geuk egin behar dugu gure lekua, presente egon, azken baten.

SONIA TRIGUERO
Psikologoa / Psikoterapeuta

Edozein kontsulta egiteko:
Zuzendu Estetika eta Errehabilitazio Zentroa.
Tel.: 943 72 52 62
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Hirusta Jatexea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAETA

GORPUZTI EGUNA | PROZESIOA

Oñatiarren egun handira milaka lagun hurreratu ziren

Goizetik iluntzera arte izan ziren ekitaldiak, baina prozesioa izan zen jende gehien batu zuena aurten ere

Goreti Elortza

Milaka pertsona batu ziren herrian Migel Deuna herriko zaindariaren eguna ospatzeko. Egun berezi horretan, Oñatikoak diren baina kanpoan bizi diren herritar ugari ere etortzen omen dira euren herrira.

09:00etan txistulari bandak eman zion hasiera egunari, batzuk oraindik etxerako bidea topatu ezinik zeuden bitartean. Izan ere, ez zen izan makala zapatu gauean egindako festa.

10:00etan Udal Musika Bandak herriko kaleak alaitu zituen eta segidan prozesioako irudiak eraman zituzten San Migel parrokiara. Ondoren, San Migel zaindari arkanjeluaren irudia eta udalbatza ere parrokiara heldu ziren eta 11:00etan urteroko meza berezia egin zuten. 12:00ak inguruan prozesioari hasiera eman zitzaion. Ehunka pertsona batu zen eliza kanpoan. Parrokiatik Ama Birjinaren irudia,

hainbat santurenak, hamabi apostoluenak eta, nola ez, San Migelenak eraman zituzten sorbaldak gainean herritarrek. Eguzkiak gogor jotzen zuen eta batek baino gehiagok majo sufritu zuen irudiaren pisua zela-eta. Oinatz taldeko kideak aurrera eta atzera ibili ziren kriskitinekin eta txistulari eta musikariak ere jo eta su ibili ziren herriko kaleetan zehar.

Herriko zaindaria da protagonista Gorpuzti eguneko prozesioan. Aurten ere Fernando Diaz izan da San Migelena egin duena. Duela bi urte hartu zion lekukoa 38 urtean aritu zen Joxe Errastiri. Primeran moldatu zen Diaz bere lanean. Foruen Enparantzan milaka pertsona batu ziren prozesioari amaiera emateko. Prozesioan lehenengo jaunartzea egin duten 66 neska-mutilek ere hartu zuten parte, urtero moduan.

ARRATSALDEAN GEHIAGO

Eguerdian Musika Bandaren kontzertua egon zen. Arratsaldetik 18:15etan Oinatz Dantza Taldeak emanaldia egin zuen Foru Enparantzan eta Korpus eguneko dantza egitarau osoa eskaini zieten hurbildutakoei. Eguna bukatzeko, 19:00etatik 21:00etara Musika Bandaren eskutik dantzaldia egon zen leku berean.



Herriko kaleetan zehar prozesioak milaka begirada izan zituen.

JOSETXO ARANTZABAL

• ZER DA ZUENTZAT GORPUZTI EGUNA?



PILI ARRONDO | ZEGAMA

“Oso egun polita da gaurkoa niretzat, 11 urte daramatzat Oñatin bizitzen eta lehenago ere etortzen nintzen prozesioa ikustera”. Arropa onekin irten zen kalera Pili, armairuko onenekin.



CRISTINA, IRATI ETA ANA | OÑATI

Oso egun berezia da eurentzat ere Gorpuzti eguna. “Mezatarara joaten gara eta prozesioa ikusten dugu, dantzariak dira gehien gustatzen zaizkigunak”, adierazi zuten neska gaztetxoek, eta arratsaldean ere ikusiko zutela euren emanaldia. Bazkari berezia ere izaten dute.



PEDRO MARI IGARTUA | OÑATI

“Bandako kideontzat oso gogorra da egun handi hau, goizean goiz hasi eta iluntzean ere musika egin behar dugulako”. Oñatiarrentzat bertan parte hartzea harro egotekoa dela adierazi zuen.

Menu pikantea dastatzeko aukera ez zuten galdu plazan batu zirenek

VI. Aste Zapatistari amaiera emateko Mexikoko jaki tipikoekin osatutako menua prestatu zuten zapatuko herri bazkarirako

Goreti Elortza

Eskoriatzako Txiapasekin Elkartasun Taldeak, herriko gazte batzarrak eta Amuska emakumeen elkarteak antolatu dute aurtengo Aste Zapatista, ibarrenean egiten den bakarra. Aste guz-

tian egon dira ekitaldiak, baina asteburukoek izan dute erantzun onena, Iurre Romarate zabala antolatzaile-buruak esan zuenez. Iurrek 12 urte daramatza Mexikora bidaiatzen eta han ikusitakoak ematen diola indarra horrelako ekitaldiak antolatzeko adierazi zigun. “Baztertuen alde egitea da helburua, baztertu mota guztien alde, eta mundu justuago baten aldeko kontzientzia piztu nahi dugu. Bestalde, Eskoriatzako zein bailarako herritarrak batzea ere ondo dago”. Kontzientziazio horren harira, hitzaldiak, film emanaldiak eta hainbat ikuskizun izan dira astelehenean hasi eta zapatura arte

tabernetan eta kultura etxean. “Adin guztientzako ekitaldiak egon dira eta informazio intergarri asko eskaini dugu, gustura gaude”.

MEXIKAR MENUA GUSTUKO

Zapatuko herri bazkarian 100 lagun inguru elkartu ziren eta oso gustuko izan zuten mexikar menua. Amuska taldeko kideek prestatu zuten janaria eta hainbat herritarrek egin zuten zerbitzari lana. Izan ere, Mexikoko lagun bat etorri zen Eskoriatzara eta hark erakutsitako errezetak prestatu zituzten: tinga, alanbrea, frijoleak, arroza, guakamolea...



Bi mahai luzetan 100 pertsona inguru batu ziren zapatuko bazkarian.

JOSETXO ARANTZABAL



Erabilitako etxebizitzaren metro koadroa 3.155 eurotan dago Leintz bailaran.

ARTXIBOA

Erabilitako etxebizitzaren prezioak goia jo omen du

Artekariak diote "dagoeneko jendea ez dagoela edozein prezio ordaintzeko prest" eta, igoerak egotekotan, ahulagoak izango direla

Jon Berezibar

Azken hamar urteetako garapena aztertu eta epe horretan erabilitako etxebizitzaren prezioak gora egiteari utzi diola eman du aditzera Garaia etxe agentziak. Joera hau joandako seihilekoan egin da nabarmen, artekaritza enpresaren datuen argitara, eta zehazki, Leintz bailaran metro koadroaren prezioa 3.155 eurotan - 525.000 pezeta - dago gaur egun. Bergarako eta Oñatiko batez bestekoak ere antzerakoak dira.

"Jendea dagoeneko ez dago edozein preziotan etxebizitza erosteko prest", dio Jesus Markaidek, Garaia agentziako artekaririk. Interesek azken hiletan gora egin dute eta Markaidek

dioenez, "jendeak ere beldurra hartu dio une ekonomikoko onean ez gaudeneko zurrumurruari". Markaidek berak azaltzen duenez, "oso altuak dira prezioak eta jendearen ahalmenak topea jo du. Bai Bergaran zein Arrasaten nabari da etxea saldu gura dutenak apur bat larritzen hasi direla". Gainera, EAEko batez bestekoari begiratuta,

"Une ekonomikoa dela-eta, nabari da etxea saldu gura dutenak larritzen hasiak direla"

nabarmenki altuagoa da Debagoieneko etxebizitzaren prezioa, Oñatiko Kortabarria etxe agentziako Blanca Kortabarria ere hala baieztatuta. Gero eta babes ofizileko etxebizitza gehiago eraike izana ere ikusten du Kortabarriak eragile moduan.

Etxebizitza berriei dagokien, zail ikusten dute Garaiatik Arrasate eta Aretxabaletan, esate baterako, jasoko diren 2.000 etxebizitza berriei irteera ematea. Markaidek dioenez, "biztanleria bakarrik etorkinekin haziko da eta haiek ezin dute etxe bat ordaindu eta Debagoienak ez du bestelako erakargarritasunik". Horren harira, hausnarketa hau egiten du Garaia artekaririk: Gasteiz aldamenean izanda eta autobide berriarekin, merkataritza herrietan gutxitzen dabil eta, hori ikusita askok Gasteizen bertan bizitzea planteatzen dute". Hala eta guztiz ere, epe laburreko joerarik aurreikustea zail ikusten dute bi artekariek.

Nazio Garapen Biltzarrak mintegia egingo du eguaztenean Bergaran

Gatazka konpontzeko bidean herritarren konpromisoa eskatu dute eta parte-hartzearen garrantzia azpimarratu dute

M.B.

Nazio Garapen Biltzarrak bere zeregina ezagutzera emateko hainbat mintegi ireki antolatu ditu Euskal Herrian barrena. Gurera ere hurbilduko dira, etzi, eguaztena; hain justu, Bergarako Miguel Altuna institutuan egingo dute mintegia, 19:00etan. Han, Euskal Herriak biziraun eta garatzeko lehentasuna duten egitasmoak zein diren azalduko dute eta prozesu horretan parte hartzeak duen garrantziaz ere egingo dute berba.

Halaxe azaldu zuten Maite Aristegi eta Jose Luis Elkoro Nazio Garapen Biltzarreko kideek egubakoitzean Bergarako kultura etxean egindako prentsaurrekoan.

NAZIO GARAPEN BILTZARRA

Nazio Etabaidagunetik eratorritako Nazio Garapen Biltzarrak 50 lagunek osatzen dute eta Nazio Etabaidagunetik hartutako erabaki estrategikoak kudeatzeko sortu zen, Maite Aristegik azaldutakoaren arabera. Herri eraikuntzarako bidean lehentasunak zehaztea dagokio Nazio Etabaidaguneari, eta Nazio Garapen Biltzarrak hori kudeatzeko eta aurrera eramateko tresna dela azaldu zuen.

AUZOLANDEGI NAZIONALA

Nazio eraikuntzarako auzo lanaren beharra ere azpimarratu zuen Aristegik: "Auzolandegi Nazionala martxan jartzeko beharra ikusten dugu. Auzo lana beti egon da Euskal Herrian eta horregatik, hain justu, biziraun dute hainbat eta hainbat gauzak gurean. Herri eraikuntzari dagokionez ere, herritar soilok gure ekarpena egin dezakegu. Guztiok elkartuta lan eginez gero, ekarpen handia egin diezaikegu gatazka konpontze honi". Horren ildora, herritarrak mintegira joateko dei egin zuen.

Eguaztenean, hilak 21, izango da, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan



Jose Luis Elkoro eta Maite Aristegi barikuko aurkezpenean.

M.B.



Arotz lanetan behar duzun guztia

Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020

www.goiena.net/blogak/azkarate

Albiste izango da

OÑATI | ETZI JASOKO DU OROIGARRIA

Pake Lekuk Tomasa Zabaleta elkartasun saria jaso du

Pake Leku erretiratuen elkarteak Tomasa Zabaleta elkartasun saria jaso du. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du sari-keta hori, Adineko Pertsonen Kontseiluarekin batera, eta adineko pertsonen artean boluntario lanak sustatzea du helburu. Modu horretan, nagusiek XXI. mendean izango duten garrantzia nabarmendu nahi dute.

Sari-ematea eguaztenean izango da, 18:00etan, Santa Anan. Foru Aldundiko, Adineko Pertsonen Kontseiluko eta Udaleko ordezkarien eskutik jasoko dute saria.

ARETXABALETA | 90.000 EUROKO AURREKONTUA DU

Datozen egunetan erabakiko dute Santutxuko biribilgunea nork egin

Aretxabaletako iparraldeko sarreran dagoen Santutxuko ermita inguruan biribilgunea egingo dute. Proiektua zeinek egin erabaki behar du Foru Aldundiak eta deialdia kaleratu zuen orain dela aste bi. 90 mila euroko aurrekontua du proiektuak, eta bost hilabeteko epea ezarri dute lanok egiteko. Iparraldeko sarrerak urte batzuk barru jasango dituen aldaketei erantzun gura diete biribilgunearekin. Batetik, kanposantura eta CVL lantegira doan bidegurutzea dago Santutxuko ermita parean, eta bestetik, trantzia pasatuko da bertatik. Horrez gain, beste industria-gune bat ere aurreikusita dago arau subsidiarioetan; hortaz, biribilgunea autoen joan-etorriak erraztuko ditu.

BERGARA | HILAREN 26RA ARTE

Gaur zabalduko dute epea San Martzialerako mahaiak hartzeko

Gaur, astelehena, zabalduko dute San Martzial egunerako (uztailak 2) mahaiak hartzeko epea. Horretarako kultura etxera jo behar da, astegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Mahai bakoitzaren prezioa 20 euro da eta eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri behar da –agiria emango dute–. Era berean, eskatzaile bakoitzak ezingo ditu bost mahai baino gehiago hartu. Mahaiok uztailean leian hartu beharko dira, San Martzialgo kantina ondoan, 17:00etatik 20:00etara. Entregatu, berriz, San Martzial egunean entregatu beharko dira 19:00etatik 21:30era, kantina ondoan. Materiala entregatzean, kultura etxean emandako agiria eraman beharko da; hari Udalaren zigilua jarriko diote eta fidantza uztailearen 3tik 7ra jaso ahalko da, kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara.

ARAMAIO | URA TRATATU GABE EGONGO DA

Ezingo da etxeko urik edan Ibarran, gaur hasi eta hilaren 26ra arte

Ibarra auzoko etxe guztiak urez hornitzen dituen ur biltegia –Goi-koerrotan dagoen biltegia– garbiketa eta konponketa lanak egingo dituzte. Lanok gaur, astelehena, hasiko dira eta hilaren 25era bitartean iraungo dute.

Hori horrela, Ibarrako etxeetan jasoko duten ura tratatu gabea izango da, eta, ondorioz, edateko txarra, Udaletik aditzera eman dutenez. Horrekin batera, lanok ur kopuruan ere eragingo dute; hala, epealdi horretan ur kopurua aldakorra izan daitekeela ere jakinarazi dute.

BERGARA | AURRE-INSKRIPZIOA UZTAILAREN 7RA ARTE

Ikasturte berriko ekintzetarako izenematea zabalik du Jardunek

Datorren ikasturteko plangintza gertatzen ari da dagoeneko Jardun euskara elkarteak, eta antolatutako egitasmoetan aurre-inskripzioa egiteko epea zabaldu du. Askotariko egitasmoak antolatu ditu: bertso eskola, trikiti eskola, eskolaz kanpoko euskara eskolak, etorkinendako eskolak eta Berriketaren egitasmoa; horiek guztiak aste barruan izango dira. Asteburuei begira, berriz, Txapligu –9-11 urte bitartean– eta Txiskrilabi –12-16 urte– aisialdi programak dauzkate. Aurre-inskripzioa uztailearen 7an bukatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako jo Jardunera (kultura etxea) edo 943 76 08 19 zenbakira deitu.

Hitzorduak



UDAKO EKINTZAK ANTOLATU DITUZTE 12-16 URTE BITARTEKOENDAKO | Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztetxoendako ekintzak dira

Ume eta gaztetxoendako udako ekintza programak antolatu dituzte Bergarako Udalak, batetik, eta Eskoriatzakoak eta Aretxabaletakoak elkarlanean, bestetik. Bietan ere, uztailean egiteko hainbat ekintza proposatzen dira: uretako eta beste-lako kirolak, irteerak, dantza ikastaroak... Bi pro-

gramak 12-16 urte bitarteko ume eta gaztetxoek daude zuzenduta.

Bergarako programaren gaineko argibideetarako, 943 77 91 60 telefonora deitu behar da. Gaur, astelehena, duzue mugaeguna. Eskoriatza eta Aretxabaletakoa Gazte Zerbitzuek eramaten dute.

ARETXABALETA |

• **Ekuatore Gineako proiektua aurkeztuko du Hiruatxek**
Hiruatx GKEk Ekuatore Gineako Mitemeleten egiten ari den CIPA elkartasun proiektua aurkeztuko du hilaren 21ean, eguaztana, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE |

• **Mendiko orientazio ikastaroa emakumeendako**
Mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa dago, emakumeendako. Ekainaren 23a da izena emateko azken eguna. Argibideak, Emakume Txokoan (943 79 41 39).

• **Antzerki Asteko bi emanaldi izango dira Arizmendin**
Antzerki Asteko emanaldi nagusiak egingo dituzte gaur, astelehena, San Viator Txiki guneko aretoan. 17:30ean, gurasoendako saioa egingo dute San Viator Txiki eta Gazteluondo gunetako taldeek; 18:30ean, guztiondako emanaldia egingo dute Batxilergoko eta DBHko taldeek, eta guraso eta irakasle taldeak.

BERGARA |

• **San Martzial egunaren gaineko oharrak**
San Martzial eguna prestatzeko herri jolasak antolatzeko boluntarioak behar ditu Udalak; gertu daudenek kultura

etxera jo behar dute hilaren 20an, 17:00etan. Bestetik, mahaiak eta aulkiak alokatzeko modua izango da ekainaren 19tik 26ra bitartean.

• **Jardunen hainbat ekintzetarako aurre-matrikulazioa**
Datorren ikasturterako ekintzak antolatzen hasia da Jardun, eta aurre-matrikulazio epea zabaldu dute uztailearen 7ra arte. Bertso eta trikiti eskolak, Txapligu eta Txiskrilabi taldeen ekintzak, Berriketaren, euskara ikastaroak... daude. Argibideak, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

• **Enpresei zuzendutako mintegia egingo dute**
Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu izeneko mintegia egingo du Miramon Enpresa Digitalak egunean, hilak 22, Miguel Altunan, 18:00etan.

DEBAGOIENA |

• **Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak**
Udako Euskal Unibertsitateak udako ikastaroak antolatu ditu dagoeneko, eta horren gaineko informazioa www.ueu.org webgunean dago.

ELGETA |

• **Asteburu bat Euskal Herrian ikastaroa emango dute**
Aipatutako Internet ikastaroa emango dute hilaren 21ean,

eguaztana, KZgunean, 16:30-18:30 ordutegian.

ESKORIATZA |

• **Erretiratuek jaialdia ospatuko dute egunean**
San Pedro jaiak ospatzen hasiko dira laster eskoriatzarrak. Horien aurrekari moduan, edadetuek jaialdia izango dute egunean, hilak 22, euren egoitzan, 17:30ean.

• **Irudi digitalak tratatzen ikasteko jardunaldia**
Irudi digitalen tratamendua delako ikastaroaren bigarren atala emango dute hilaren 23an, egubakoitza, KZgunean, 18:00-20:00 ordutegian.

LEINTZ GATZAGA |

• **Ludotekako azken eguna dela-eta, jaialdia egingo dute**
Ludotekako azken eguna izango dela-eta, jaialdia egingo dute egubakoitzean, hilak 23, Herriko plazan, 17:30ean. Desfilea, txokolatea eta musika izango dituzte umeek.

OÑATI |

• **Interneteko bi ikastaro emango dute KZgunean**
Finantza erakundeekin lan egin Interneteko ikastaroa emango dute gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, KZgunean, 18:30-20:30 ordutegian; eta lanpostu bat bilatzeko eguaztenean, 09:00-11:00.

Kalitatea, erakargarri

Prezioa ikusita, harrigarria da hain kalitate handia edukitzea, eta alderantziz



Toyota Corolla Luna 3 ate D-4D Diesel 15.885 €.

Toyota Corolla Luna 2006 gama.

- Ondorengo motorrak: azken belaunaldiko D-4D Diesel Common Rail eta VVT-i gasolina.
- Aire-girogailu automatikoa (aire girotua Sedan eta Wagon bertsioetan).
- Aire-zakuak: gidariak, gidari-lagunak eta albokoek.
- ABS+EBD 4 freno-diskorekin.
- Gurpilak 195/60 VR15"-ko aleaziozko hagunekin.
- Irratia CD RDS 4 bozgorailurekin
- Atzerako ispiluak: margotuta, elektrikoak eta berogailuarekin.
- Aginte-panelean aluminio/karbono itxurako txertaketa (3 ate eta 5 ate).
- Audio-agintea integratuta duen larruzko bolantea.
- Optitron instrumentazioa.

Toyota Corolla bat daukazu 13.330 €-gatik



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



Kontzesionarioa

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Oñatiko lasterketa erdara hutsean

Larunbat arratsaldean Oñatin Atxintxiketako antolatutako lasterketa dela-eta honako kezu hau helarazi digu irakurle batek. Bozgorailuan erdara besterik ez zela entzuten salatzen du irakurleak gutun honetan:

“Jakin badakigu edozein antolakuntzak, eta are gehiago nazioartekoa bada, ahalegin ikaragarria eskatzen duela. Gainera, nahikoa da akats txiki bat urte osoko lan guztia hankaz gora botatzeko. Atxintxiketa KEkoek akats larri bat egin zuten larunbatean. Eskualdean herri bat bada euskaraz bizi dena, hau Oñati da. Horrela diote estatistikek eta baita ere eguneroko bizitzak. Goienkaria Ganbara Abesbatzari egindako errekonozimendu ekitaldian egon zen. Euskara baino ez genuen entzun. Lourdes Idoiaga alkatesa euskaraz mintzatu zitzaizen gerturatutako guztiei. Berdin egin zuten koruko ordezkariak. Itzulpenik ez zen izan, euskara komunikazioko ohiko hizkuntza bihurtuta dutelako oñatiarrek euren bizitzako esparru gehienetan. Larunbat arratsaldeko lasterketak irauin zuen ordubetearen, berriz, gaztelarak bete zituen Oñatiko enparantza eta kaleak. Akats larria benetan. Seguru ez zela hau antolatzailen asmoa, esku programa ere euskaraz argitaratu zuten-eta. Bizpahiru iragarki kenduta, beste guztia euskaraz. Jende askok haserre hitz egin digu, eta ezin arrazoi alerik kendu. Gaur egun ezinezkoa zirudiena, Oñatin ekitaldi bat gaztelara hutsean egitea alegia, aurreko larunbatean gertatu da. Alde honetatik zerbait esan beharko luke Goienak ere, bere izena laguntzaile bezala agertzen delako esku-programetan. Goiena eskualdeko euskara elkarteek sortu zuten gure hizkuntzaren erabilpen eta hedapenean lan egiteko. Hobeto lotu beharko lituzke hitzarmen hauek, ez dadin berriro gertatu, orain bezala, bere helburuen aurkako ekitaldiak bultzatzen amaitu duela.”

Sarean harrapatuta

Etxebizitza prezioa egonkortu egingo dela uste duzu?

Deba Garaia etxe agentziak sei hilabetean behin egiten du Leintz bailarako etxebizitzaren prezioen inguruko azterketatxo bat. Etxe agentzia horren azken datuen arabera, Leintz bailaran bigarren eskuko etxebizitza

prezioa ez da igo azken sei hilabeteetan. Gai horren gainean egin dute galdera aste honetan *Goiena.net* webgunean: Etxebizitzaren prezioa egonkortu egin dela uste duzu? Hemen dituzue erantzun batzuk.

GURASOEN ETXEAN GERATU BEHAR GAZTEAK

Ni ez nago horren ziur. Leintz bailaran baliteke, baina Debagoienean ez dut uste. Oñati aldean behintzat prezioak dezenteko hazi dira. 60 milioitik behera lehen eskuko etxeak gutxi eta bigarren eskukoak, berriz, 40-50 bat milioi balio dute. Alokairua ere oso gaizki dago. Ehun mila pezetan dago alokairua, ia soldata oso bat. Egoera horrek gazte asko eta asko independizatzeko eragozten du eta ondorioz 26 urterekin asko gurasoen etxean gaude.

Miren / www.goiena.net

ALOKAIRU SISTEMA INDARTU BEHAR DA

Ni ere bat nator zurekin Miren. Noiz arte jarraitu behar dugu egoera honetan? Arzozko kapitalismoko filosofia oker honetan dago. Izan ere, Europa osoan alokairuan bizi dira. Ez dute etxerik erosten, baina guk daukagun arazo honi irtenbidea emateko bide ona dela uste dut. Zaila da baina txipa aldatu beharko dugula uste dut.

Jon / www.goiena.net

ZERGAK JARRI BI ETXE DITUZTENEI

Nik irtenbide bakarra ikusten dut. Horrek jendeak aukerak berriz planteatzea ekarriko luke,

eta agian nahiz eta salmentako etxebizitzaren prezioa ez jaitsi, geldiarazi egingo luke. Eta hori nola lor daiteke? Niri pare bat neurri ezinbestekoak iruditzen zaizkit: Lehenengo aukera izango litzateke gobernuaren aldetik jarra aldatu eta 2. 3. 4. edo 5. etxebizitzari zerga bereziak ezartzea. Zerga horiek ekiditeko modu bakarra alokairuan jartzea izan dadila, eta hala etxebizitza mordoxka bat mobilizatuko dira. Bigarren aukera, berriz, Lurzoruaren Legea delakoan benetako

aldaketa bat sartzea eta eraikitzen diren etxebizitza berrien ehuneko bat alokairu publikokoa izan dadila.

Giltza / www.goiena.net

EUROPARA BEGIRATU BEHARKO GENUKE

Etxebizitzaren prezioak hainbeste igo dira diru beltza duten horiek nonbait inbertitu behar izan dutelako diru hori dena ez galtzeko. Eta, bitartean, beste inuzente guztiok, legalki eta etikoki jokatzen dugunok, ezin etxebizitza erosi edo errentan hartu. Europan zergatik dira merkeagoak errentak edo etxebizitzak? Hemen adinako diru beltz ez delako mugitzen, boterean dauden horiek ondo aztertzen dutelako dena eta gizartean ez dagoelako hemen bezain ondo ikusita diru beltzean kobratzea edo tranpak egitea. Marbella esaten da, baina Debagoienean ere ez dut uste askoz atzerago gaudenik.

Diru beltza / www.goiena.net

BURBUILA EGONKORTU DELA DIRUDI

Nire ustez pixka bat egonkortu dira prezioak. Hor egon dira urte batzuk izugarri igo direla, baina orain badirudi gelditu dela pixka bat burbuila hori. Ea gehiago ez diren igotzen.

Ainhoa / www.goiena.net

www.goiena.net

Leintz bailarako etxebizitzaren prezioa egonkortu egin dela uste duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Gutxiago kontsumitzen duten etxetresnak erosteagatik dirua emango du Jaurlaritzak. Neurri ona da



CELINA MENAZA | KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Ez dut uste egitasmoak erantzun masiboa izango duenik, eskaintzen duten beherapena zenbait kasutan ez delako nahikoa. Hala ere, energia aurrezteko abiatzen den edozer beti da positiboa, ze kontzientziario handia falta baita. Hala ere, ez dut uste aldaketa handirik ekarriko duenik.



CESAREO LOITI | ALMACENES ARRASATE

Neurri ona dela uste dut, ze kontsumo urriagoko etxeko elektratresnak gero eta merkeago baitaude; eta horiek sustatzeko balioko du. Gainera, A motakoak epe luzera errentagarriagoak izaten dira, gutxiago kontsumitzeaz gain, bizitza luzeagoa daukate eta. Gero eta gehiago saltzen dira.



RAFA HERRAN | HERRAN ETXEA

Egitasmoaren asmoa kontsumo jaistea da, energia gutxiago inportatzeko. Horregatik, elektratresna zaharrak aldatu gura lirateke. Asmoa interesgarria da norbaitek tresna zaharra bota eta berria erosi gura izatekotan, baina bestelakorik ez dakit erakarriko ote duen.



BEGOÑA IGARTUA | FAGOR ETXETRESNAK

Fagorren asmoekin guztiz bat datorren ekimena da. Guk ahalgina egiten dugu etxetresna efizienteak egiten, ingurumena lehentasunetako bat da-eta. Fagorren webgunea egin dugu kontsumitzaileak jakinaren gainean izateko eta saltokietan eskuorriak ipiniko ditugu.



Egunkarietako harribitziak

ERREINUAREN DEFENTSA

Erreinu independente izandako 800 urteetan, defentsarako gaztelu lerroa sortu zuen Nafarroak. Lerro hark gaur egungo Euskal Herria eta Kantabria, Errioxa, Aragoi eta Biarnoren zatiak hartzen zituen. Gaztelu haien gaineko erreportajea jaso zuen atzo *Zazpika* gehigarriak.

'Gara'
2006-06-18



MALDAN BEHERA ETENGABE

Lan indarraren ezaugarriak aldatu egin dira, eta lan harremanak ere ez dira orain dela 30 urtekoak. "Sindikatu gehiegi aurretik egindakoaz bizi dira", diote European Trade Union Institute elkartetik. Hain zuzen ere, aldaketa horiek afiliazioaren jaitsieran gorpuztu dira mendebaldeko herrialdeetan. European, 1950. urtetik inoiz baino langile gutxiago daude sindikatuetan errolatuta.

1980. urtetik herrialde gehienetan atzera egin du sindikazioak. European Trade Union Instituterekin estimazioen arabera, 1995. urtetik 2001era %32,6tik %25,4ra pasatu da Europar Batasun osoa aintzat hartuta (25 herrialdeak). Jaitsiera oso nabarmena izan da hamar kide berrien artean, ia erdira murriztu baita (%42,7tik %20,4ra).

'Berria'
2006-06-18



Tira, tira...



Bozkatzera!

Zulet 'El Diario Vasco' | 2006-VI-18

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

ELKARRIZKETA

"Guztiok uste dugu beharrezkoa dugula salbuespenik gabeko elkarrizketa, eta Batasuna konponbiderako ezinbesteko pieza dela. Hortaz, gizarteari eta lehendakariaren aurka prozesu judiziala hasi dutenei erakutsi nahi diegu azken horrek Gobernu guztia ordezkatzen duela. Gobernuak askotan azaldu du uste hori".

Miren Azkarate
2006-06-18

'Berria'

ELKARRIZKETA

"Inorekin bilera egitea, bilera egitea hutsa, ez da legez kanpoko. Batasuna pertsona juridikoa da. Bestela, ez da existitzen, BBVA existitzen ez den moduan. Gauza bat da Batasuna legez kanpo uztea eta beste bat Batasuneko pertsonen eskubide politikoak kentzea. Eskubide zibilak galtzea ezin dira zigortu Batasuneko kideak ezta hautesleak ere".

Joaquin Jimenez
2006-06-18

'Deia'

ELKARRIZKETA

"Batasunak ere bere aldetik jarri behar du ilegalizazioarena konpontzeko. Mezu argia helarazi diegu modu pribatuan: ona litzateke aste gutxitan kontu hori behin betiko konpontzea. Ezin da uda ostera atzeratu. (...) Gauzak ondo badoaz, aste gutxitan bideratuta egongo da Batasunarena, baina hark eta sozialistek adostu beharreko gaia da".

Josu Jon Imaz
2006-06-18

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"Nahi duguna da berba egitea. Ez bakarrik ezker abertzalearekin -konponbiderako beharrezkoa da-, euskal gizartearen ordezkari guztiekin baizik. Esan nahi diegu ezker abertzaleari eztabaidan parte hartu nahi badu beharrezkoa dela bere gain hartzea planteamendu demokratikoak. Eurekin berba egitea ona izango da bake prozesuarentzat".

Patxi Lopez
2006-06-18

Zorroztalea

Zesarren emaztearen hori



EAJk Arrasaten duen zinegotzi batek alderdikide duen alkateari hirigintzan irregulartasunak egin izana leporatzen dio. Egozten dio enpresaburu bati etxegintzako operazio handi bateko gainbalioa bereganatzen utzi izana, gainbalio hori Udalaren mesedetan erabili ordez.

'El Diario Vasco' | 2006-06-17

Elena Laka

Nola itzultzen da *irregularidad* euskarara? Ohiz kanpoko ekintza? Arauz kanpoko ekintza? Zatarzeria? Zelan izendatu Arrasateko Udalean gertatu dela esaten duten hori? Kontua duela aste bi atera zen, eta gaur egun oraindik herritarrak ez dauka informazio garbirik. Batek zioen besteak zerbait egin zuela. Zerbait egin zuela esaten zuten horrek ezetz dio, baina kontuak behar den gardentasunez erakusteke.

Telebistan, pertsona baten atxilotetaren albistea ematen dutenean, beti pantailaratzen zaigu haren auzokoa, harri eta zur adieraziz atxilotutakoa bizilaguna on eta normaltzat zeukala. Telebistako auzokoa bezalakoxea naiz ni: ez daukat arrazoirik pentsatzeko ondoan bizi direnak, hurbileko agintariak tartean, adostasunak edo ideologiak gorabehera, morroi zintzoak ez

direnik. Itzal beltza zabaldu da, baina, Arrasateko gobernuaren buruaren gainean, eta honek oraingoz ez du hodeia urrun bidaltzeko ahalegin nahikoa erakutsi. Lainoa aldentzeaz urruti, beltzuz eta handituz doa, oraingoan alderdikidearen adierazpenarekin.

Esaera zaharrak dio badaude la lagunak, etsaiak eta alderdikideak. Zein da alderdikideak Gipuzkoako egunkari ofizialeko lehen orrialdera jo izanaren arrazoa?

Herritarrak, lehenbailehen, ganorazko azalpen bat behar du. Ugari dira zabaltzen ari diren susmoak, eta oster a urri eskaintzen ari diren esplikazioak. Administrazioan ez bezala, giza harremanetan isiltasunak baiezko efektua al du? Beharrezkoa ote gogora ekartzea agintariek ezkerreko paparraren daramaten pinean grabatu beharko luketen topikoa? Zesarren emaztearen hori, alegia?

"Itzal beltza zabaldu da Arrasateko gobernuaren buru gainean; honek oraingoz ez du bidaltzeko ahalegin nahikoa erakutsi"

"Zein da alderdikideak Gipuzkoako egunkari ofizialeko lehen orrialdera jo izanaren arrazoa?"

KIROLA

- Elgetako ETB kantxa txapelketako final erdiak jokatu ziren | 18
- 40 lagun elkartu ziren Labegaraietan kirol egokituko jaian | 16

Arrasateko Iturripe kiroldegian eskubaloia gertutik ezagutu zuten gaztetxoek | 14

OÑATIKO IV. HERRI LASTERKETA



JOSETXO ARANTZABAL

Tadessek, Kamaisek eta Tesfayohannesek sariak jaso ondoren -lore sorta eta txantxikua- xanpainarekin ospatu zuten.

OÑATIKO IV. HERRI LASTERKETA | HAILE GEBRESELIASSIEREN MUNDUKO ERREKORRA HOBETZEKO SAIKERA OÑATIN

Munduko errekorra 52 segundora geratu zitzaion Zesernay Tadesseri

Eritreako korrikalariak lasterketa irabazi arren, kronometroa 27:54an geratu zuen

Iratxe Aranburu izan zen emakumerik azkarrena; helmugan 36:36ko denbora egin zuen

Mireia Bikuña

Oñati 10.000 metroko munduko errekor barik geratu zen. Tadessek ezin izan zuen Haile Gebreselassiek duen errekorra (27:02) ondu. 52 segundo gehiago egin zituen, 27:54. Baina ikuslek ez zuten hutsik egin eta korrikalariak animatzen egon ziren.

2:42 MINUTU ITZULIKO

Oñatiko kaleetan zehar homologatutako zirkuituari zazpi buelta eta erdi eman behar zioten korrikalariak. Gebreselassieren errekorra hobetzeko itzuli bakoitza 2:42an egin behar zuen Eritreako korrikalariak. Hala egin zuen hasierako hiru kilometrotan. Orduetik aurrera Tadesse

bakarririk geratu zen lasterketa buruan eta itzuli bakoitzeko segundoak galtzen joan zen. 10.000 metroko munduko errekorrak ihes egin zion.

LAU KORRIKALARI AURRETIK

Eritreako Zesernay Tadesse eta Mesfin Tesfayohannes, Keniako Peter Kamais eta Francisco Bachiller izan ziren hasieratik lasterketa buruan jarri zirenak. Erritmo bizia jarri zioten lasterketari. Baina berehala Tadesse eta Kamais geratu ziren bakarririk aurrean.

Plazan kokatuta zegoen helmugatik 3. aldiz pasatu zirenean Tadesse lasterketa buruan zen bakar-bakarririk. Peter Kamais, 2004ko irabazlea, atzeratuta geratu zen.

Atzetik gainontzeko korrikalariak zihoazen: Kamel Ziani

oriotarra eta Julio Rey, besteak beste. Azken hark ere beste erronka bat zuen Oñatin: Juan de La Ossaren esku dagoen errepideko 10 kilometroko errekorra gainditzea (27:55). Toledoko korrika-

lariak ez zuen aukerarik izan, hasieratik atzeratuta geratu baitzen.

DEBAGOIENDARRAK

Debagoieneko korrikalariak dagoeneko, esan, bi bakarririk izan zirela irteera hartu zutenak, biak ere oñatiarrak: Ritxar Fernandez eta Asier Osinaga. Baina Fernandezek ez zuen lasterketa amaitu. Asier Osinagak oso nekatuta amaitu zuen lasterketa: "Oso gogorra izan da. Baina merezi du halako maila dutenekin korrika egitea", adierazi zigun amaieran.

LAU EMAKUME

Emakumeen lasterketan lau korrikalariak parte hartu zuten. Amaia Piedra zen lasterketa irabazteko hautagai nagusia, baina lehen itzulitik Iratxe Aranburu zarauztarra jarri zen buruan.

Ikusle asko bildu zen ibilbidean munduko errekor saiakera ikusteko

Irteera 32 korrikalari hartu zuten; helmugara 23 besterik ez zen iritsi

ONATIKO IV. HERRI LASTERKETA

• ONATIN JOKATUTAKO HERRI LASTERKETA IRUDITAN



IRTEERA. Oñatiko postetxearen aurrean hartu zuten irteera herri lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. 32 izan ziren irteera lekuan: 28 gizonezkoak eta 4 emakumezkoak. Oñatiko kaleetan zehar, homologatutako zirkuituari zazpi buelta eta erdi eman ondoren 23 korrikalari izan ziren helmugara iritsi zirenak.



DEBAGOIENDARRAK. Debagoieneko bi korrikalarik bakarrik parte hartu zuten zapa-tuko lasterketan. Ritzar Fernandez –argazkian– eta Asier Osinaga oñatiarrak. Ritzar Fernandezek ez zuen lasterketa amaitu. Asier Osinaga, aldiz, helmugara 14. tokian iritsi zen. 36:02an egin zituen 10.000 metroak.



TADESE AZKARRENA. Bere helburua Haile Gebreselassieren munduko errekorra gainditzea zen. Baina ez zuen lortu. Hala ere, parte-hartzaile guztien artean azkarrena zela erakutsi zuen Eritreako korrikalariak. Tadesse iaz munduko krosetako txapel-dunorde izan zen eta Atenasko Joko Olinpikoetan brontzea lortu zuen.



IRATXE ARANBURU. Zarauzko korrikalaria ez zen lasterketa irabazteko hautagai nagusia. Baina indartsuena zela erakutsi zuen. Azkeneko bi urteetan Donostiako maratoi erdia irabazi duen korrikalarik 36:36ko denbora egin zuen. Maiatzean Arrasate-Oñati lasterketa ere irabazi zuen.

ZESERNAY TADESE | ERITREA

“Sentitzen dut, ezin izan dut azkarrago joan”

Zure buruarekin gustura amaitu al duzu lasterketa?

Ez. Ez nago batere gustura. Nire helburua 10.000 metroko munduko errekorra gainditzea zen eta ez dut lortu. Ahalegindu naiz, baina ez da posible izan. Sentitzen dut, baina ezin izan dut azkarrago korrika egin.

Zer iruditu zaizu Oñatiko herri lasterketa?

Ez nuen ibilbidea ezagutzen. Baina gustatu zait. Onena, hala ere, ikusleen animuak izan dira. Jende asko bildu da ibilbidean zehar eta hori eskertzekoa da. Askok lagundu dit, nahiz eta helburua ez bete.

Joko Olinpikorik eta Munduko Txapelketarik ez daogun urte honetan, zein da zure hurrengo helburua?

10.000 metroko beste proba batzuk korrituko ditudan arren,



JOSETXO ARANTZABAL

nire plangintza udazken aldera maratoi erdian emaitza ona egi-tera bideratuta dago.

Oñatira itzuliko zara?

Gurako nuke 2007an ere lasterketan parte hartu.

IRATXE ARANBURU | ZARAUTZ

“Gure lasterketan maila hobea espero nuen”

Nola ikusi duzu lasterketa?


Ba egia esan, nahiko xeblebra izan da. Goi mailako lasterketa zen arren, emakume gutxi-rik parte hartu dugu. Nik ere atzo bertan erabaki nuen Oñatira etortzea. Baina indartsuena nintzela erakutsi dudala uste dut. Errepidean entrenatzera ohituta nago eta ez zait zaila egin.

Gustura zaude egin duzun denborarekin?

Bai. Eguenean Anoetan entrenatzen egon nintzen eta hankak kargatuta nituen, baina mailari eutsi diot.

Beste emakume korrikalariak nola ikusi dituzu?

Nik uste nuen maila hobea emango zutela. Euskal Herri mailan punta-puntako korrikalariak dira Amaia Piedra eta Estitxu Urrutia. Egia esan, ez dakit zer gertatu zaien.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Ikusle asko egon da animuak ematen. Zuek nabaritu duzue?

Askok. Itzela izan da. Ez nuen halakorik espero inondik ere. Eskerrik asko, guztiei, emandako animuengatik.

Emaitzak

GIZONEZKOETAN LEHENAK

- Zesernay Tadesse (27:54)
- Peter Kamais (28:55)
- Mesfin Tesfayohannes (29:56)
- Kamel Ziani (30:11)
- Fernando Rey (30:24)
- Julio Rey (30:35)
- Jose Fuentes (30:53)
- Pablo Lopez (30:56)
- Unai Saez De La Fuente (32:39)
- Cipri Burcio (33:15)
- Manu Hurtado (34:41)
- Anartz Etxeberria (35:11)
- David Huebra (35:31)
- Asier Osinaga (36:02)
- Ignacio Antoñanzas (38:42)
- Roberto Pire (38:49)
- Enrique Suarez (41:23)
- Patxi Xabier Leon (46:48)

EMAKUMEZKOETAN LEHENAK

- Iratxe Aranburu (36:36)
- Estitxu Urrutia (38:29)
- Amaia Piedra (42:01)

ARRASATE | ESKUBALOI JARDUNALDIA

Gaztetxoek eskubaloian jokatzen ikasi zuten Iturripen

90-96 urteetan jaiotako gaztetxoek eskubaloiaz gozatzeko aukera izan zuten zapatuan Arrasaten; zazpi neska-mutiko bakarrik izan ziren

Arantzazu Ezkibel

Eskubaloia gertutik ezagutzeko asmoarekin zazpi neska-mutiko hurbildu ziren zapatuan Iturripera, Arrasate eskubaloi taldeak antolatutako jardunaldietara.

Bertan, eskubaloia zer den erakutsi zien Andoni Arandok, eskubaloi taldeko entrenatzaileak. Mota ezberdinetako jokoak egin zituzten. Zakarrontzien laguntzarekin, erasoko ariketak egin zituzten neska-mutilek. Jaurtiketak lantzeko modu egokia izan zen.

PARTIDUA JOKATU ZUTEN

Orain astebete beste hitzordu bat izan zuten eskubaloi taldekoek gaztetxoekin. Orduan, neska-mutiko gehiago azaldu ziren: "Orain astebete, 20 lagun elkartu ginen eta horietatik 11 neskak izan ziren. Gaurkoan, ordea, jende gutxiago etorri da".

Ariketa ezberdinak egin eta gero, partidu bat jokatzeo aukera izan zuten Arrasateko neska-mutilek. "Jende gutxi etorri da, baina partidu txiki bat jokatzeo aukera izango dugu azaldu

garenon artean", esan zigen Andoni Arandok.

Jardunaldi hauen helburua neska-mutilek eskubaloia ezagutzea izan da. "Gaztetxoek artean, eskubaloia oso kirol ezezaguna da. Horregatik, eskubaloia gertutik ezagutzeko aukera eman nahi diegu neska-mutilei".

DENBORALDI BERRIA

Denboraldi berriari begira, alebin eta infantil mailetan nesken eta mutilen talde bana atera nahi dutela azaldu zigen Andonik. Arrasate eskubaloi taldekoek esan zigutenez, jendearen laguntza beharrezkoa da horrelako taldeak aurrera ateratzeko orduan. Azaldu nahi duten guztiak ongietorriak izango dira.

Infantil eta alebin mailan nesken eta mutilen taldeak atera nahi dituzte datorren urtean



JOSETXO ARANTZABAL

Neska-mutiko gutxi zegoela-eta, zakarrontziak erabili zituzten defentsa lanak egiteko.

JUAN LUIS ISASMENDI | ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

"Helburua gazteek eskubaloia ezagutzea da"

A.E.

Zapatu goizean Arrasateko Iturripe kiroldegian zen hitzordua. Bertara zazpi neska-mutiko hurbildu ziren eskubaloia ezagutu eta Arrasateko Eskubaloi taldean jokatzeo asmoarekin.

Zein da jardunaldi hauen helburua?

Helburu nagusia umeek eskubaloia ezagutu eta datorren urteari begira eskubaloian jokatzeo animatzea izan da.

Urtero antolatzen duzue?

Ez, beste urte batzuetan zer bait antolatu dugun arren, aurtengo da lehenengo urtea horrelako jardunaldiak egiten ditugula.

Gazteen artean eskubaloia kirol ezezaguna da?

Futbola eta saskibaloia oso kirol ezagunak dira gazteen artean, baina eskubaloia aparte dago, ez da hain ezaguna.

90-96 urte bitartean jaiotako neska eta mutilei zuzenduta egon da gaurko jaiak. Beharrezkoa izan duten bakarra eskubaloian jokatzeo gogoia izan da.



Juan Luis Isasmendi.

Datorren denboraldiari begira ze asmo daukazue?


Oraindik ez daukagu garbi zenbat talde izango ditugun. Infantil mailan, nesken talde bat osatu gurako genuke.

• GAZTETXOEK GOGOKO DUTE ESKUBALOIA?



LIDE ETA ALAINE | ARRASATE

Lide eta Alaine izan ziren zapatuan Iturripe kiroldegian elkartu ziren neska bakarrak. Eskubaloian jokatzen ikasteko gogoz azaldu ziren. "Orain astebete ere etorri ginen eta oso ondo pasa genuen", adierazi ziguten biek. Ze kirol duten gogokoen galdetu genien eta zalantzak izan zituzten erantzuterakoan: "Futbola ere asko gustatzen zaigu", esan ziguten. Hala ere, etorkizunean eskubaloian aritzeko gogoz daudela esan ziguten Lide eta Alaineek.



MIKEL, XABI ETA JOSU | ARRASATE

Arrasateko hiru mutiko hauek eskubaloia zer den ondo dakitela erakutsi zuten zapatuan. Ez zen eskubaloian jokatzen zuten lehenengo aldia. "Ikastetxean ere, heziketa fisikoko orduetan, jokatu izan dugu eskubaloian", esan ziguten. Baina jolas-orduetan futboleantzen omen dira gehienetan. "Futbola ere asko gustatzen zaigu eta horregatik jokatzen dugu futboleantzen jolas-orduetan". Mikel, Xabi eta Josuk Arrasateko eskubaloi taldean jokatu nahi dute.



ARITZ ETA AITOR | ARRASATE

Aritz eta Aitor orain astebete Iturripen izandako eskubaloi jardunaldietan egon ziren. "Gaur baino jende gehiago bildu ginen eta oso ondo pasa genuen". Zapatuan, Andoni Arandoren esanetan ibili ziren, eskubaloiak dituen sekretu guztiak ikasi nahian. "Ikastetxean, heziketa fisikoko orduetan aritu izan gara eskubaloian jokatzen, baina normalean futboleantzen jokatzeo ohitura handiagoa dugu", aitortu zuten. Eskubaloia gogoko dutela esan ziguten.

BERGARA | 70. SAN ANTONIO SARIA

Azken kilometroan ihes eginda irabazi zuen Gorka Agirrek

Zapatuan 70. San Antonio saria jokatu zen Bergaran, eta ibilbideak 69,5 kilometro izan zituen

Arantzazu Ezkibel

Tropeletik saihesbidean ihes egin eta helmugara bakarrik iritsi zen Lagun Onak taldeko Gorka Agirre. Kadeteen 70. San Antonio sariko irabazlea izan zen azpeitiarra, 1:54:14ko denbora eginda.

70 kilometroko lasterketa izan zen zapatukoa. Kadete mailako txirrindulariek hartu zuten parte proban: lehenengo mailako eta bigarren mailako kadeteek, hain zuzen ere.

Lasterketari hasiera Gipuzkoa osoko 88 txirrindularik eman zioten. Horien artean 21 ibarreko txirrindulariak izan ziren: 11 Aloña Mendi (Oñati) elkarteak, zazpi Dorletako Ama (Arrasate) elkarteak eta hiru Lokatza (Bergara) elkarteak.

IHESALDI SAIAKERAK

Lasterketak Bergarako San Antonio auzoan izan zuen hasiera arratsaldeko lauretan. Hasiera batean 16:30ean aurreikusita bazegoen ere, azken momentuan zirkulazio arazoak zirela-eta aurreratu egin zuten irteera ordua. Tropela geltokiko zubitik saihesbidera atera zen, handik Osintxurako bidea hartzeko. Osintxun buelta eman eta barru-

tik berriro ere Bergara aldera hartu zuten txirrindulariek. Bergatik Elorregira (San Prudentzio) abiatu ziren txirrindulariak. Arrasatetik Eskoriatzara joan eta Aingeru Guardan itzulia eman zuten berriro ere Elorregirantz hartzeko. Elorregitik bigarren aldiz pasatu zirenean 43 kilometro eginak zituzten txirrindulariek, baina oraindik 26,5 kilometro zituzten egiteko. Elorregitik Antzuolara igo ziren eta handik Osintxura jaitsi ziren Bergararik pasatuta. Osintxutik bueltan, saihesbidean, Gorka tropeletik ihes egin eta helmugara lehenengo iritsi zen.

BERGARAR ONENARI SARIA

Irabazlearen atzetik Zarauzko Iban Etxeberria sartu zen, sei segundora. Lehenengo urteko kadete saria Mikel Elortzak eraman zuen. Helmugan 7. postuan sartu zen Mikel (1:54:21).

Lokatza taldea izan zen lasterketako antolatzailea eta hori dela-eta elkarteko lehenengo txirrindularia saritu zuten. Garai-kurra Antzuolako Xabier Arantzetak eraman zuen.

Sailkapena


1. Gorka Agirre	(1:54:14)
2. Iban Etxeberria	(1:54:20)
3. Asier Septien	(1:54:21)
4. Xabier Arnaiz	(1:54:21)
5. Eder Gomez	(1:54:21)
6. Aritz Agirre	(1:54:21)
7. Mikel Elortza	(1:54:21)
8. Imanol Ugalde Ansa	(1:54:21)
9. Aitor Ugalde	(1:54:21)
10. Ander Zubillaga	(1:54:21)



Lagun Onak taldeko Gorka Agirre izan zen azkarrena San Antonioko helmugan.

ARANTZAZU EZKIBEL

• HONELA IKUSI DUTE LASTERKETA TXIRRINDULARIEK



GORKA AGIRRE | AZPEITIA

"70 kilometro egin ditugu eta azkenerako luze egiten da. Tropelean joan gara denbora guztian, baina azken momentuan ihes egitea lortu dut, eta irabazi".



XABIER ARANTZETA | ANTZUOLA

"Lasterketa gogorra izan da. Ihesaldi saiakerak egin ditugu, baina indartsuago egon dira beste txirrindulari batzuk eta ezerezean geratu dira ihesaldi ahaleginak".



MIKEL ELORTZA | AZKOITIA

"Ahal nuen lasterketa onena egi-tera etorri naiz Bergarara. Dena ondo joan da, baina bukaerarako gogorra egin zait, luze egin zaizkit 70 kilometroak".

Ondarreko gymkana

Faboritoek ez zuten huts egin Antzuolan jokatu zen Ondarreko gymkanean

Arantzazu Ezkibel

Faborito nagusiak izan ziren tre-beenak zapatuan jokatu zen Ondarreko gymkanean. 26 neska-mutikok hartu zuten parte proban, horien artean 3 neskek izan ziren.

Alebin mailan, Mikel Asensio izan zen lehena eta Txomin Esnaola bigarrena. Benjamin mailan Josu Aiausti, Urtzi Mugurutzeta eta Jon Fernandez geratu

ziren lehenengo, bigarren eta hirugarren hurrenez hurren. Prebenjamin mailan, Xabier Iparagirre eta Mikel Arregi izan ziren azkarrenak.

SAILKAPEN OROKORRA

Sailkapen orokorrak ez du aldaketarik izan. Prebenjaminetan Mikel Arregi da lehena. Benjaminetan Urtzi Mugurutzeta eta Alebinetan Mikel Arregik jarraitzen du lehenengo postuan.



JOSETXO ARANTZABAL

Gaztetxoek oztipo ezberdinak gainditu behar izan zituzten zapatuan.

Labur

Aitor Arana laugarren Hiru Handietan

Joan zen astean, akats bat izan genuen Hiru Handiak mendi ibilaldiko emaitzak ematerakoan.

Lehenengo debagoiendarra Xabier Lijo izan zela esan genuen. Gaizki esanak zuzendu nahian, lehenengo debagoiendarra Aramaio Aitor Arana Arexolaleiba izan zela esan beha dugu. Aitorrek Otxandioko Miru Gain elkar-tearekin hartu zuen parte. Laugarren iritsi zen 13:13:15ko denbora eginez.

Kirol egokitua

BERGARA

40 lagun elkartu ziren ikasturte bukaerako kirol egokituaren jaian

Bailara osoko 40 laguneko taldea elkartu zen Bergarako Labegaraieta kiroldegian

Ezindu fisikoei zein adimen urritasuna duen jendeari egokitutako jaia da

Zapatuan eslaloma, boccia, badmintona eta beste zenbait kirol egin zituzten

Arantzazu Ezkibel

Labegaraietako kiroldegian egokitutako kirol jaia ospatu zen zapatuan. Bertan, Debagoien osoko 40 lagun bildu ziren. Kirola egin ez goiza lagun artean pasatzeko prest agertu ziren guztiak. Adin tartea zabala izan zen parte-hartzaileen artean.

BAILARAN KIROLA EGITEKO ESKAINTZA ZABALA

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jaia izan zen. Labegaraietan zeuden begiraleen esanetan, Debagoienak aukera zabala eskaintzen du nolabait urritasuna duen jendeak kirola egiteko. 12 urte daramatza Mankomunitateak kirol egokitutako jarduerak antolatzen.

Hala, Dordoka elkartearen bidez, lehiaketa ezberdinetan parte hartzeko aukera dute kirolariek. Dordoka elkarteak hiru egoitza ditu Gipuzkoan: Donostian, Zumarraga-Urretxun eta Bergaran.

Kirol egokitua, pertsonen urritasunaren arabera, hiru talde ezberdinetan banatzen da: urritasun fisikoa duen jendea, adimen urritasuna dutenak eta urritasun sensoriala dutenak. Azken talde horretan itsuak, gorrak... daude. Hala ere, urritasun sensoriala duen jendeari egokitutako kirol jarduerak oso gutxi antolatzen omen dira.



JOSETXO ARANTZABAL

Begiraleak. Zapatuan Labegaraietan bildu ziren begiraleek lan ona egin zuten. Kirol aukera zabala eskaini zieten bertaratutako lagunei.



JOSETXO ARANTZABAL

Uztaiak. Argazkian ikus daitekeen bezala, diskoa uztai barruan sartzeko trebetasun handia dutela erakutsi zuten parte-hartzaileek.



JOSETXO ARANTZABAL

Ohe elastikoa. Parte-hartzaileak gustura aritu ziren ohe elastikoetan saltoka. Arrakasta handien izan zuen kirol jarduerak izan zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Uztai jaurtiketa. Uztaiak jaurtitzeko orduan fin aritu ziren. Begiraleek esan digutenez, trebetasun jokoak omen dira gogokoena.

• HORRELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK



HARITZ BIKUÑA | BERGARA

“Astean bi bider egiten dut kirola. Gehien gustatzen zaidana eslaloma da. Hala ere, atletismoa eta hockeya ere gogoko ditut”.



NEREA EGAÑA | BERRIZ

“Astean hiru aldiz Bergaran egiten dut kirola. Lagun asko egin ditut. Gehien eslaloma gustatzen zait”.



KONTXI HERVAS | BERGARA

“Kirola ez dut gogoko; beraz, ez dut askorik egiten. Horrelako jaietan, lagun artean ondo pasatzen dugu”.



JULIAN ARANBURU | OÑATI

“Saskibaloia eta futbola asko gustatzen zaizkit. Aloña Mendi ikustera joaten naiz domeketan Azkoainera”.



BIRGINIA DE MANUELES | BERGARA

“Nik igeriketa egiten dut astean hiru bider. Igeri egiteko era guztiak gustatzen zaizkit, baina bizkar eran aritzen naiz ondoen”.

Iruditlan



MIREIA BIKUÑA

Udaberri Txapelketa. Argazkian agertzen diren neska-mutikoak izan dira Oñatiko Udaberri Txapelketako protagonistak. Guztira 552. Zapatuan egin zuten sari banaketa ekitaldia. Eskubaloian, saskibaloian, areto futboleant, zortzinako futboleant, badmintonean, squashean, tenisean eta patinajean parte hartzeagatik sariak jaso zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

Plater tiroketa. 46 tiratzailek, haietako bat emakumea, parte hartu zuten Oñatin jokaturako plater tiroketa saioan. Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarria zen saioa, eta Jose Mari Otamendik irabazi zuen.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Zaldibarko areto futbola. Iluntz eta Iriztu taldeek jokatu zuten zapatuan Zaldibarko kopa txapelketako finala. Partidu parekatua izan arren Iluntzek irabazi zuen, 2-0. Argazkian, irabazleak.



JOSETXO ARANTZABAL

Saskibaloia. Euskadik 55-70 galdu zuen atzo Eskoriatzan Gaztela Leongo selekzioaren aurka. Jende asko hurbildu zen partidua ikustera.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilota profesionala. Arretzek eta Mendizabalek 22-11 irabazi zieten Retegi II.ari eta Urrizelkiri, egubakoitzean Oñatin jokaturako partiduan.

PILOTA | DEBARROKO TXAPELKETAKO FINALERDIAK, JOANEKO PARTIDUAK

Aretxabaleta eta Arrasateko bikoteek abantaila hartu dute

Arrasateko kadete eta senior mailetakoko bikoteak eta Aretxabaletako seniorrak aurretik dira kanporaketan. Bergarako Iñarra-Gutierrez bikoteak, aldiz, arrasatearren aurka galdu zuen

Mireia Bikuña

Egubakoitzean jokatu ziren Arrasate eta Aretxabaletan Debarroko Txapelketako finalerdietako lehen norgehiagokak. Eta emaitzak ikusita, Arrasateko Agirre-Axpe eta Zubizarreta-Bolinaga bikoteek abantaila hartu dute kanporaketetan. Aretxabaletako Errasti anaiek ere mendean hartu zuten Elgoibarko Lagunak elkarteko bikotea.

AGIRRE-AXPE NAGUSI

Arrasateko Uarkape frontoian jokatu zen senior mailako debagoiendarren arteko norgehiagoka. Agirre-Axpe arrasatearren aurka neurtu zituzten indarrak.

Bergarako bikotea zen irabazteko hautagai nagusia. Baina Axpek partidua bikaina jokatu zuen. "Gure asmotan ez zegoen partidua irabaztea. Baina Axpe lan itzela egin du. Partidu borobila jokatu du. Garaipenarekin oso gustura gaudela esan beharrik ez dago", adierazi ziguten amaieran arrasatearren. Axpek ezker kakra ederki erabili zuen.

Amaieran Arrasateko bikotea nagusitu zen markagailuan: 22-13. Hala, abantaila hartu dute kanporaketan.

ERRASTI ANAIK, LARRI

Senior mailako bigarren norgehiagoka Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan jokatu zen. Aretxabaletako Errasti Anaiek eta Elgoibarko pilotariak lehia zuten. Eta kostata, baina etxeko bikoteak lortu zuen garaipena: 22-20.

"Partidu gogorra izan da. Hasieran ondo jokatu dute aretxabaletarren. Baina gero lehia parekatu egin da", esan ziguten amaieran. Partidua galtzeko arriskua ere izan zuen Aretxabaletako bikoteak.

ARRASATEKO KADETEAK

Finalerdietako lehiarik parekatuena, berriz, kadete mailan jokatu zuten Arrasate eta Aretxabaletako bikoteak. Zubizarreta eta Bolinaga arrasatearren 22-8 hartu zituzten mendean Akizu eta Gardoki aretxabaletarren.

Debarroko finalerdietako itzulerako partidua dotozen egunotan jokatu dira



Arrasateko senior mailako bikoteak, gerriko urdinarekin, mendean hartu zuen Bergarakoa.

JOSETXO ARANTZABAL

Bi partidutan egindako tantoek esango dute nortzuk sailkatzen diren finalerako

Uste baino samurrago irabazi zuen Arrasateko bikoteak. "Aki-zuk normalean baino huts gehiago egin ditu. Horrek mesede egin digu. Markagailu zabala lortu badugu ere, itzulerako partidua gogorra izango da", adierazi zigun partidua amaieran Arrasateko bikote kideetako baten aitak.

BUELTAKO PARTIDUAK

Oraindik zehazteke dauden arren, datozten egunotan jokatu ko dira hiru kanporaketa haiek itzulerako partidua. Bi norgehiagokatan lortutako puntuak batu egingo dira finalerako txartela zein bikote lortzen duten jakiteko.

ETB Kantxa Txapelketa

Nagusietan Ollo eta kadete mailan Peñas finalean dira

Datorren egubakoitzean jokatu dira beste finalerdiak

Arantzazu Ezkibel

Ollok eta Peñasek ETB Kantxa finalerako txartela eskuratu dute, egubakoitzean finalerdietako partidua irabazita.

Ollok nagusien taldean jokatu du txapelketa eta finalerdian 22-10 irabazi zion Lasari. Datorren egubakoitzean, arratsaldeko 8etan Irureta eta Gonzalezek jokatu dute bigarren finaler-

dia eta hortik aterako da Olloren aurkaria izango dena.

KADETEK MAILA BIKAINA

Peñasek kadete mailako finala eskuratu du, Gorka 22-4 gaindituta. Kadete mailako bigarren finalerdia ere datorren astean izango da, Eleskano eta Perezen artean.

Elgetako ETB Kantxa Txapelketan 108 pilotari nagusi eta kadete mailako 87 pilotari aritu dira. Maila ona erakutsi dute pilotariak, batez ere kadete mailakoek. Urte batzuk barru profesional mailan arituko diren pilotariak izango dira.

Txapelketako final handia uztailearen 2an jokatu da.



Elgetako txapelketa jokatu duten pilotari batzuk gaur egun profesional mailan ari dira.

JOSETXO ARANTZABAL



Txirrindulariek giro ona izan zuten zapatuan Sabiñanigoko lasterketan.

OIER BILLA

XVI. QUEBRANTAHUESOS | 7.138 TXIRRINDULARI IZAN ZIREN SABIÑANIGOKO IRTEERAN

150 debagoiendar izan ziren irteeran

XVI. Quebrantahuesos lasterketa jokatu zen zapatuan Sabiñanigon; 205 kilometroko lasterketa

Arantzazu Ezkibel

Debagoieneko 150 txirrindulari joan ziren zapatuan Sabiñanigora, Quebrantahuesos lasterketan parte hartzera. 205 kilometro zituen lasterketak. Hala, irteera

puntua Sabiñanigon izan zen, goizeko 8etan.

PORTALET MENDATEA

205 kilometroko lasterketan, Portalet mendatea izan zen puntu garaiena. Portalet gainak 1.795

metroko garaiera du. Debagoiendarren artean, Jone Muxika elgetarrak lasterketa bikaina egin zuen. Bigarren sailkatu zen bere sailean, 6:53:42ko denbora eginda. Oskar Askasibarrek, berriz, sailkapen orokorreko 28. postuan amaitu zuen lasterketa, 5:54:30eko denbora eginda.

Giroa bikaina izan zen zapatuan. Ikusle asko hurbildu zen bide hertzera eta txirrindulariak haien babesa jaso zuten.

JONE MUXIKA | BIGARREN EMAKUMEA

"Hasierako kilometroak izan dira gogorrenak"



ARTXIBOA

Arantzazu Ezkibel

Jone Muxika elgetarrak bigarren amaitu zuen XVI. Quebrantahuesos lasterketa. 205 kilometroko estreinakoz egin zituen zapatuan Jonek.

Nola ikusi duzu zure burua Quebrantahuesos lasterketan?

Espero nuena baina hobeto ibili naiz. Hasiera batean beldur nintzen ea ahulaldiren bat izango ote nuen. Izan ere, kilometro askoko lasterketa da Quebrantahuesos.

Baina gero gustura ibili naiz. Gainera, eguraldia ere ona izan da. Ez du bero handirik egin eta horrek ere lagundu egiten du. Euri zaparradak bota ditu, baina giroa ona izan da.

Parte hartu duzun lehenengo aldia izan al da?

Bai, aurtengoa lehenengo aldia izan da. Iaz Treparriscos egin nuen, lasterketa txikia, eta aurtun handiarekin saiatu naiz.

Iaz bezala, Elgetatik lagun talde polita etorri gara Sabiñanigo aldera. Faka-Fakako lagunak

etorri gara. Iaz etorri ziren batzuk aurtun ezin izan dira etorri, baina beste batzuk, ordea, lehenengoz etorri dira. **205 kilometroetan ze zati egin zaizu gogorrena?**

Niretzako gogorrena hasierako zatia izan da. Lehenengo kilometroak lauak izan dira eta horrelako lekuetan jendea oso azkar ibiltzen da. Gorpila hartzea kosta egin zait.

Bukaeran ere, Portalet igoitea zaila egin zait. Azken kilometroak dira eta ordurako hankak minduta dituzu.

Zenbat neskak hartu duzue parte?

Nire taldean, 18 urtetik 34 urte bitartekoan taldean, 61 neska ibili gara eta 35 urtetik gorakoan taldean 59 neskak hartu dute parte.

Non entrenatzen zara?

Elgeta inguruan ibiltzen naiz bizikletan. Eta kilometro gehiago egin nahi izanez gero, inguru guztiak ezagutzeko aukera daukazu. Kostaldean, Bizkaian, Gipuzkoan bertan... ibiltzen naiz. Beti leku berean ibili beharrean aldatzea gustatzen zait.

Debagoieneko partehartzaileen zerrenda

Arrasate

572. Daniel Diaz	6:37:37
1058. Mikel Lasa	6:55:07
1360. M. Juanjo Hierro	7:05:56
2235. Oskar Loiti	7:31:22
2239. Nicanor Valor	7:31:26
2942. Jose Luis Ugidos	7:49:58
2997. Jose Mª Landa	7:51:30
3252. Aitor Laskurain	7:58:38
3847. Gorka Gonzalez	8:17:05
4361. Juan Antonio Irizar	8:33:46
4600. Javier Castillo	8:43:33
4824. Isaak Kortabarria	8:52:29
5317. Unai Ibabe	9:18:43
5605. Bernardo Arantzabal	9:37:49

Bergara

188. Arkaitz Mendizabal	6:15:27
364. Jesus Taboada	6:28:50
449. Ilker Herran	6:32:38
452. Aitor Mugika	6:32:45
680. Benigno Menor	6:42:01
684. Garikoitz Arregi	6:42:12
867. Gorka Arrieta Etxeberria	6:47:33
967. Iban Aguirrebeña	6:50:56
1015. Ibon Mujika	6:52:59
1206. Igor Aguirrezabal	6:59:11

1264. Igor Unamuno	7:02:20
1365. Xabier Patxi Garitano	7:06:03
1891. Iker Osa	7:22:38
1909. Iñaki Acebo	7:23:18
2287. Edu Moreno	7:32:50
2558. Iban Barrutia	7:38:55
2967. Jon Azkarreta	7:50:39
2970. Iñigo Olañeta	7:50:40
3397. Xabier Lazkano	8:02:25
3402. Mikel Osoro	8:02:38
3709. Aitor Murguizu	8:12:36
3800. Jesus Sanz	8:15:44
3889. Felix Altxelai	8:18:21
4111. Iñaki Almortza	8:24:19
4186. Igor Iñurrategi	8:27:05
4293. Juan Luis Arregi	8:30:44
4492. Carlos Cardoso	8:39:52
5166. Josu Otaegi	9:10:50
5168. Ruperto Alberdi	9:10:57
5191. Amaia Etxeberriarteun	9:11:53
5202. Roberto Arrieta	9:12:33
5490. Eneko Lazkano	9:29:48
5558. Asier Etxaniz	9:33:45
6210. Javier Etxeberria	11:34:36

Oñati

59. Igor Kortabarria	6:01:24
88. Anartz Murguzur	6:05:00

363. Joseba Molinero	6:28:40
587. Aitzol Arregi	6:38:23
681. Arkaitz Laskurain	6:42:03
883. Juan Antonio Sainza	6:48:17
1114. Jesus Mª Agiriano	6:56:50
1133. Gorka Lizarralde	6:57:39
1152. Cayetano Perez	6:58:02
1159. Jabier Aldekoa	6:58:12
1390. Xabier Guridi	7:07:10
1421. Jose Mª Lertxundi	7:07:56
1456. Manu Arregi	7:09:04
1627. Jabier Irizar	7:13:55
1920. Jose Antonio Sierra	7:23:37
2077. Roberto Anduaga	7:27:28
2123. Jose Mª Zugasti	7:28:15
2124. Felix Bengoa	7:28:15
2310. Jon Marton	7:33:22
2400. Juan Molina	7:35:21
2590. Juan Carlos Garcia	7:39:35
2945. Julen Iriondo	7:50:02
3165. Agustin Otxoa	7:56:30
3197. Ritxar Altuna	7:57:09
3295. Juan Carlos Txintxurreta	7:59:35
3358 Ilker Jausoro	8:01:38
3363. Ibon Jausoro	8:01:42

3382. Unai Elortza	8:02:08
3588. Jose Mª Maiztegi	8:08:45
3756. Gaizka Guridi	8:14:01
3784. Iban Campo	8:15:14
3785. Gorka Blain	8:15:14
3944. Iñigo Madina	8:19:26
3974. Patxi Axpe	8:20:11
3980. Bittor Axpe	8:20:19
4242. Jon Urtzelai	8:28:54
4265. Gaizka Aranburu	8:29:44
4453. Gerardo Zurututza	8:37:51
4714. Gaizka Arregi	8:48:03
5321. Jon Ander Madina	9:18:51
5403. Uguzne Altube	9:22:58
5404. Mikel Arenatza	9:22:58
5750. Joseba Blazquez	9:51:05
5751. Miriam Odriozola	9:51:06

Aretxabaleta

418. Jon Urkia	6:31:37
742. Asier Elkorobarrutia	6:44:05
2904. Alfredo Irusta	7:48:51
3942. Antonio Perez	8:19:20
4755. Oihane Etxebarria	8:49:12
4756. Asier Guenetxea	8:49:12

Eskoriatza

298. Jose Antonio Markaide	6:24:01
325. Emete Gallastegi	6:25:27
373. Jon Armendia	6:29:07
2079. Goio Uribe	7:27:32
3419. Jesus Oyon	8:02:52
3422. Juan Luis Markaide	8:02:53
3436. Jon Salgado	8:03:08
3848. Xabier Gabilondo	8:17:08

Antzuola

1146. Benjamin Arana	6:57:54
1149. Imanol Garmendia	6:57:57
2067. Gotzon Mendizabal	7:27:14
6087. Asensio Aranburu	10:41:24

Elgeta

28. Oskar Askasibar	5:54:30
1555. Eñaut Arantzeta	7:12:02
1558. Jone Mujika	6:53:42
3383. Francisco Javier Larrañaga	8:02:08

Aramaio

1768. Oskar Zufiria	7:18:54
3635. Jaime Ibabe	8:10:09
4223. Unai Garcia	8:28:16
5056. Alberto Ibabe	9:05:23

Iturria: www.quebrantahuesos.com

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- San Juanen atarian hainbat emanaldi egingo ditu Arrasate Musikalek | 23
- Hamahiru musika eta antzerki sario dakartza aurten Musikaire jaialdiak | 27

Jokin Intza jeltzale historikoarekin egin dugu berba erresistentziaz eta erbestez | 26

NAZIOARTEKO VII. TXOTXONGILO MOSTRA



JOSETXO ARANTZABAL

Entre diluvios izeneko saioa egin zuen Salamancako La Chana Teatro taldekoak Pol-Polen.

Zenbakiak

10

Hamar txotxongilo taldek hartu dute parte mostran. Eta nork bere estiloa dauka; izan da, beraz, non aukeratu.

3

Saio guztiak hiru lekutan egin dira: Pol-Pol tabernan, Munibe plazan eta gaztetxean, hain zuzen.

7

Zazpi herrialdeko taldeek hartu dute parte: Katalunia, Madril, Argentina, Salamanca, Euskal Herria, Israel eta Venezuela.

4

Eguenean hasi eta domekara arte iraun du VIII. Txotxongiloen Nazioarteko Mostrak, lau egun oso.

TXOTXONGILO MOSTRA BERGARAN | HERRIKO HIRU GUNETAN EGIN ZITUZTEN EMANALDIAK

"Oso erantzun ona izan dute mostrako ekitaldi guztiek, oso pozik gaude"

Katalunia, Madril, Argentina, Venezuela, Israel eta Salamancatik etorritako taldeek ume, gazte zein nagusiak harrিতuta utzi zituzten euren saioekin, beste behin

Goreti Elortza

Bi urtean behin izaten da Bergaran Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostra. Aurten, Pol-Pol tabernan, Munibe plazan eta gaztetxean izan dira saioak eta guztiek izan dute harrera ona. Aroztegi aretoan, berriz, erakusketa izan da egun hauetan zehar, eta jende mordoxka hurbildu da *Stopmotion*, *Cine y Marionetas* izeneko erakusketara. Han, txotxongiloen antzerkian ohiko-

ak diren material eta teknikak ezagutzeko aukera izan zen. Erremintak, filmazioen argazkiak, maketak, txotxongiloak... egon dira ikusgai aretoan.

Aurten ere Taun Taun taldeak jardun du mostra antolatzen, Udalaren laguntzarekin batera, eta oso pozik daudela izandako erantzunarekin adierazi digute. "Saioak oso desberdinak izan dira, nork bere berezitasuna izan du eta esan dezakegu guztiek izan dutela oso erantzun ona. Gaine-

ra, eguraldiak lagundu egin du kalean egin diren ekitaldi guztietan". Gaztetxean izandako ekitaldiak nabarmendu dituzke antolatzaileek: "Jendea oso gustura irten zen saioetatik eta bete-bete egin zen lokala, gainera. Antolaketatik aldetik ere ez dugu arazorik izan, eta, beraz, egun hauen inguruko balorazioa guztiz positiboa da", esan digu Itsaso Azkaratek, Taun Tauneko kideak.

Aurtengo egitarauan ere denetik egon da eta adin guztietarako, gainera. Egubakoitz gauean Valeria Guglietti argentinarrek gaztetxean egindako emanaldian, argiak eta itzalak eragindako kontraste soilarekin han batutakoak harrিতuta utzi zituen. Eskuak erabiliz animaliak eta hainbat pertsonaia desberdin irudikatu zituen.

Zapatu gauean gaztetxean *Paella* saiora ere jende ugari joan zen. Roman & Cia madrildar hirukoteak gutxieneko elementuekin eraikitako zortzi

pantomima aurkeztu zituen. Goma-aparrez egindako panpnekin barre ugari egin zuen jendeak. Jarritako musika oso egokia izan zen eta saioak ulertzeko lagundu zuen.

HAURRENTZAT ERE IZAN ZEN

Haurrek ere izan zuten non disfrutatu. Zapatu goizean Munibe plazan Euskal Herriko Kukubiltxo taldeak eskaini zuen saiora haur ugari hurbildu ziren. Kukubel artzain gazteak txirula magikoarekin musika entzuten zuen oro dantzan jartzen zuen. Istorioa aurrera joan ahala haur batzuk beldurtu egin ziren bertan agertutako herensugearekin, baina gehienek oso ondo pasatu zutela aitortu zuten. Igandean ere erraldoien familiarekin gustura ibili ziren txikiak.

Gaztetxean egin diren ikuskizun guztietan bete egin da lokala

Denetariko ikuskizunak ikusteko aukera aprobetxatu zuten bergararrek VIII. edizioan

NAZIOARTEKO VII. TXOTXONGILO MOSTRA



JOSETXO ARANTZABAL

Madrilgo Román & Cía taldearen *Paella* emanaldia gaztetxean.



JOSETXO ARANTZABAL

La divina comedia eskaini zuten Kataluniako Pepe Otal & Pep Gomez taldekideek.



JOSETXO ARANTZABAL

Madrilgo Teatro Urgentekoen saioa Pol-Pol tabernan.



JOSETXO ARANTZABAL

Kukubiltxo taldekoek ume ugari batu zituzten zapatu eguerdian Munibe plazan.

• IKUSLEEN ESANAK



LIERNI ETA GLORIA | BERGARA

“Umeentzat oso ekitaldi egokiak dira horrelakoak, alaiak eta barregarriak”

Umeekin gerturatu ziren Lierni eta Gloria Munibe plazan egin zuten Kukubiltxoren emanaldira. “Panpinak oso politak ziren eta kontatutako istorioa ere aproposa izan da umeentzat”, adierazi zuten bi neskek. Liernik ekitaldia umeentzat izateko luzeegia iruditu zitzaiola adierazi zuen, baina gustatu zitzaiola.



AINHOA, CARLA ETA MIRIAN | BERGARA

“Etorri garen lehenengo ekitaldia izan da eta asko gustatu zaigu, gehienbat Kukubiltxo gustatu zaigu”

Oso gustuko izan zuten ekitaldia hiru lagunek. “Panpinak oso politak ziren eta herensugea ere ikusgarria zen. Ume batzuk beldurtu egin dira, txikiak”. Hurrengo ekitaldi batera joateko asmoa ere agertu zuten gaztetxoek. Gertu-gertutik ikusi zuten emanaldia txikiak, lurrean eserita. Gurasoek ere nahiko barre egin zuten Kukubiltxoren istorioarekin.



IRENE ETA JONE | BERGARA

“Hain gauza gutxirekin hainbeste gauza egitea benetan ikusgarria izan da”

No toquen mis manos Valeria Guglietti argentinarraren argi eta itzalen saiora joan ziren Bergarako bi neska hauek. “Gaztetxea bete egin da eta oso ondo egon da. Gu berandu heldu gara eta motza iruditu zaigu!”. Barre ugari egin zituzten. “Animaliak eta hainbat pertsonaia desberdin irudikatu ditu eskuez baliatuta”.

MUSIKA | GOZATU EDERRA HARTU ZUTEN MUSIKARIEN JARRAITZAILEEK ZAPATUAN

Betiko girotze tenkatuak deskarga elektrikoiez aldatuta itzuli zen Anari

'Zebra' disko bikaina aurkeztu zuen Anarik zapatuan gaztelekuan, aurrekoetan baino zuzeneko elektrikoagoan eta indartsu

Jon Berezibar

Inoiz baino elektrikoagoa izan zen Anari abeslari azkoitiarrak Oñatiko gaztelekura egindako hirugarren bisita. Gitarra elektrikoak gainean eta sekulako banda errekrutatuta, *Zebra* azken lan gordineko abestiak defendatu zituen.

Azkoitiarrak aurkezten duen soinu, betiko jarraitzailearentzat, hasiera baten, agian indartsuegia da. *Habiak* lanean aurkeztutako txelozko atmosferak alde batera utzita, *Zebra*-ko abestiak hezur eta haragizkoagok dira, gitarra elektrikoek bizitza emanda. Azaleko energia elektriko horren ostean, baina, betiko Anarik jarraitzen du.

Aingura hegodunak-ekin ireki zuen gaua, diskoan bezala, eta hortik aurrera *Zebra* lan osoa aurkeztu zuen. Zuzenean izaera berezia hartzen dute *Naufragoak*, *Txori Beltzak*, *Desertua* eta halako abestiek. Aipatzeko ere, diskoan hain biluzik aurkezten den (*H)egoak*-ek bizia hartu zuela. Zer esanik ez, diskoa ixten duen *Gu* bortitzaz, indar eta amorrer berberarekin jo zutena.



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatira egindako hirugarren bisitan ere ez zuen hutsik egin azkoitiarrak.

MOLDAKETA BERRIAK

Azkoitiarraren betiko abestiek ere lekua izan zuten, baina *Zebra*-ren doinu gordin eta elektrikoiez jantzita: honela, *Bihotza galdu dut*-en txelo zorabiagarria gitarrarekin ordezkatu zuten eta *Gure mundua* mitikoari testura berriak eman zizkioten. Guztie-

Aurkeztutako soinu elektrikoaren atzean betiko Anari dago, euskal kantugile gazteetan onena

tan aipagarri *Orbainak* abestia; ikaragarria da moldaketa berria, tronpeta eta guzti. Opari moduan, *Dut*-en *Haize eza* jo zuten, bertaratutakoen gozamenerako. Abestien aukeraketa, hortaz, ezin hobeia izan zen.

Egungo euskal kantugile gazterik onenak -zalantza gutxire-

kin- berriz ere ez zuen hutsik egin Oñatin. Kritika zein jarraitzaileak aldeko ditu Anarik eta hirugarren diskoarekin borobildu besterik ez du egin ibilbide itzela. *Zebra* zuzenean aurkezteko aukeratutako banda ere ez da makala, eta zuku guztia atera zieten Anariren abestiei.

• HIRUGARREN LANA, 'ZEBRA', AURKEZTU ZUEN



ELEKTRIZITATEA. Doinu aldaketa ikaragarria da aurreko lanetatik. Bere betiko ildotan baina tenkadura gitarra elektrikoiez sortuz, berehala barneratzen da azkoitiarraren soinu berria. *Gu* abestian eta *Naufragoak*-en ikaragarria da indarra eta *Aingura Hegodunak* eta (*H)egoak*-en gitarren erabilera itzela. Aldaketak mesede egin dio abeslariari, aberastuta itzuli zen Anari.



BAKARLARIA, BAINA EZIN HOBETO LAGUNDUA. Lisaböko Karlos Osinagak ukitu itzela eman dio *Zebra*-ri eta zuzenekoetan ere mami berarekin aurkezten dute disko berria. Zuzenekoetarako euskal banda mitikoetako kideak hartu ditu -*Dut, Bap!!* eta Inoren Ero Ni taldekoak tarteko- eta zur eta lur uzteko emanaldiak dabilta eskaintzen Euskal Herri osoan; ez galtzeko modukoak.

ARRASATE MUSIKAL | EGUBAKOITZEAN 100 BAT IKASLEK EMANALDIA EGIN ZUTEN AMAIAN

Asteon hiru emanaldi egingo ditu Arrasate Musikalek herrian

Bandak eta abesbatzak egingo dute emanaldia, eta batukada egingo du perkusio taldeak herrian barrena

M.B.


Kurtso bukaera heltzen ari den arren, Arrasate Musikalek ekitaldi ugari ditu oraindik egiteko. Egubakoitzean egin zuten horietako bat, Amaia antzokian. Eskolako talde instrumentalek egin zuten emanaldia: musika taillerreko neska-mutikoek abestu egin zuten eta horrekin batera, banda txikiak, orkestra gazteak, klarinete talde batek, biolin bikote batek, balet taldeak, haize-egurrezko taldeak eta talde instrumental misto batek hartu zuten parte.

Guztira 100 bat ikasle igo ziren Amaia antzokiaren taula gainera, eta ikasturtean barrena ika-

sitakoa erakutsi zuten guraso, lagun eta irakasleen aurrean; musikari txikienek 5 urte zituzten eta nagusienek, berriz, 16. Ordubete inguruko saioa egin zuten eta entzuleak gustura asko egon ziren.

EMANALDI GEHIAGO

San Juanak direla-eta hainbat emanaldi egingo dituzte Musika Eskolako kideek datozen egunotan: bihar, martitzena, perkusio taldeko kideek batukada egingo dute, 18:30ean, Arrasaten barrena, eta 19:00ak aldera kontzertua, herriko plazan. Ekainaren 22an, kantu ikasleek kontzertua eskainiko dute, 18:30ean, Musika Eskolan. Ekainaren 24an, San Juan egunean, eskolako bandak urteroko kontzertua egingo du Montterronen, 13:00etan. Horren aurretik, kalejira egingo du 11:00etatik aurrera. San Juanen ostean, ekainaren 30ean, hain justu, Altsasura joango dira Musika Eskolako Bandako kideak eta han ere emanaldia egingo dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Taldeka hartu zuten parte ikasleek. Goiko irudian musika taillerreko neska-mutikoak abesten; behekoan, hari taldea.

Jose Reyes Ramosek Leioara eroan du lehen saria

M.B.

Parte-hartze txikia izan zuen zapa-tuan Arrasate Margo Taldeak antolatutako II. Herensugea margo lehiaketak. Iaz ekin zioten lehiaketa antolatzeari eta iazkoaren aldean ia erdira jaitsi da parte-hartzaile kopurua: 22 margolarik hartu zuten parte.

EMANALDI GEHIAGO

Parte-hartzaile kopurua handia izan ez zen arren, maila ona egon zela nabarmendu zuten antola-

tzaileek eta lehen saria nori eman erabakitzeko orduan epaimahaiak ez zuela inolako zalantzarik izan. Hala, lehen saria Leioako Jose Reyesek eroan zuen (1.500 euro eta txapela); bigarrena Raimundo Argos bilbotarrak (750 euro) eta hirugarrena, Jon Idigoras ermuarrak (420 euro). Bestalde, herriko lan onenaren saria Valentin Aranarendako izan zen (350 euro).

Sari nagusiez gain, umeendako sariketa ere egin zuten zapa-tuan.



JOSETXO ARANTZABAL

Montterron kultura etxean egin zuten sari-ematea. Irudian irabazleak, pozik, jasotako sariarekin.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN ➔ www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zorbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria); **KODEA**

Pop-Rock
 Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
 Aitzolari (Kortatu) | AIZKO
 Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
 Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | ASKATA
 Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
 Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
 Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
 Eguneru (Hertzainak) | EGUNERO
 EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
 Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
 Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
 Entzuidazu (Aterking's) | ENTZU
 Etorkizuna (Etsaia) | ETORKI
 Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
 Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
 Haizea (Ken7) | HAIZEA
 Hegal egiten (Ittoiz) | HEGAL
 Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
 Ilargia (Ken 7) | KEN
 Inpermuen ate joka (Gatibu) | INPER
 Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
 Kaixo (Urtz) | KAIXO
 Lau Teilatuta (Ittoiz) | ITOIZLAU
 Laztana (Latzten) | LAZTA
 Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
 Loretxoa (EXKIXU) | LORE
 Marea Gora (Ittoiz) | MAREA
 Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
 Nicaragua (Kortatu) | NICA
 No time for love (Hertzainak) | NOTIME

Salve (La Polla) | SALVE
 Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
 Sorginen leizean (Exkoxu) | SORGIN
 Txatxo (Zarama) | TXATXO1
 Txus (La Polla) | TXUS

Trikitixa
 Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
 Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
 Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
 Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
 Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
 Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
 Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
 Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
 Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON

LOGOAK (SMS 1) KODEA

SATANAS	EH2	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURRIS	LORA	BABAK
BASAJAUN	IKURRIS	LAUZ	ARRANAK

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema akitibatuta izatea. GPS sistema akitibatzeke, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ku jaitziera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemari alta ematea doan dira.

* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. ** Vodafone: deitu 123-ra. *** Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Estuzkoen zailaketa duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitezue abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

MUSIKA I
RAFA RUEDA

'Saredun eskua' aurkeztu du Elgetako Espaloian

Pop doinuetan murgilduta jarraitzen du bakarkako 2. lanean

A.G.

Pop doinuetan murgilduta jarraitzen du Rafa Ruedak eta horren adibide izan zen egubakoitzean Elgetako Espaloia kafe antzokian egindako emanaldia. Bere bakarkako bigarren lana aurkeztera etorri zen gurera, *Saredun eskua* izenekoa, eta bertaratutakoei garbi geratu zitzaizen PILT taldeko garaiak igaro direla eta haiekin batera Rafa Ruedak rock gogorra egiten zueneko.

Ez zen bakarrik egon Rueda taula gainean. Harekin batera egon ziren Mikel Azpiroz, teklatuan, Mikel Gonzalez baxujotzailea, eta Rufo Urbina, batera-jotzailea.



Rafa Rueda Espaloian.



ESKER ONEKO EKITALDIA | GANBARA ABESBATZA

Gazteek merezitako esker ona jaso zuten eta argi utzi zuten zergatia

Udaletxeko areto nagusian batu ziren eta gero luntxa egin zuten leku berean

Goreti Elortza

Ganbara abesbatza 1994an jaiotako taldea da eta hasiera batean 12 gaztek osatzen bazuten ere, egun 30 inguru dira abesbatzako kideak. Esteban Urtzelai da zuzendaria, 27 urteko gaztea. Abesbatza-

ren ibilbidea goraiatu nahi izan zuten egubakoitzean Oñatin.

19:00etan guraso, lagun eta Udaleko ordezkariak batu ziren Udaleko areto nagusian. Abesbatzako kideak jendaurrera irten ziren eta txalo mordoa jaso zituzten. Segidan Lurdes Idoiaga oñatiko alkateak hitz batzuk esan zituen. Euren ardura, sakrifizio, konpromiso eta ilusioa goraiatu zituen Idoiak. Baita orain arteko 12 urteetako ibilbidea eta talde lana ere. Gainera, babesa eta animuak eman zizkien Udalaren

eta herriaren izenean. Abesbatzako kideek asko eskertu zuten.

OROIGARRIAK KIDEEI

Segidan Udaleko ordezkariak arrosa eta abesbatzaren ikurra

“Gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da guretzat, bidea ez da erraza izan”

zeraman pin bana oparitu zieten abesbatzako banakoei.

Oroigarria jasota, kide batek egin zuen berba. Eskerrak eman zizkien batutakoei eta merezi zutela aitortu zuen. Gurasoen laguntza ere goraiatu zuen. Ondoren, Urtzelai zuzendariak eskerrak eman zizkion Udalari eta lanean gogor eta ilusioarekin jarraituko dutela aitortu zuen. Hurrengo ekitaldi batzuen berri ere eman zuen. Bukatzeko, hiru abesti eskaini zituzten, eta euren gaitasunak agerian gelditu ziren.

Antolatzaileak pozik Arrasateko Urban Festak izandako erantzunarekin

Aurreko aldietan eguraldiak jaia ilundu bazuen, zapatuan 'skater' zein ikusle ugari batu zen Zaldibarren

M.B.

Pozik ziren zapatuan Arrasateko Urban Festaren antolatzaileak. Goizean, euria ziharduela eta, ekitaldia bertan behera lagatzea pasa zitzaizen burutik. Hala ere,

atertu eta sekulako jaia egin zuten Zaldibarko frontoian. 10 bat urte-tik hasi eta 30era arteko 30 *skater* inguru animatu zen han jarritako U, taula, errail eta bestelako oztopoetan ibili eta abilezia erakustera.

Horrekin batera, grafiti egileak ere hurbildu ziren Zaldibarrera eta horma-irudi handia margotu zuten. Zeregin horretan jardun zuten Broc, Ukan eta Frik grafiti egileek, besteak beste.

Hori guztia borobiltzeko arratsaldean kontzertuak ere egon ziren: Aretxabaletako Scam eta Azkoitiko Ezinean taldeek jo zuten.



10 eta 30 urte bitarteko 30 bat *skater* ibili ziren Zaldibarren egokitutako gunean.

JOSETXO ARANTZABAL

BERTSO SAIOA | SAN JUANETAKO SAIOA EGIN ZUTEN AED-K ANTOLATUTA

Gaurkotasun gaiak eta udako giroa Monterronen

*Zapatu gauean 22:30ak inguruan
hasi eta gauerdia arte iraun zuen
ekitaldian bost bertsolari ezagunek
hartu zuten parte, doako saioan*

Goreti Elortza

Jende dezente batu zen Monterrogo parkean zapatu gauean egin zuten bertso saioa. San Juan jaien inguruan urtero egiten da bertso ekitaldia eta aurten ez dira gutxiago izan. AEDk antolatutako ekitaldia doan izan zen eta punta-puntako bost bertsolarik hartu zuten parte: Maialen Lujanbio, Jokin Labaien, Sustrai Colina, Iratxe Ibarra eta Unai Iturriagak. Gai jartzailea, berriz, Lierni Altuna aramaioarra izan zen.

GAI UGARI EUREN AHOTAN

Guztiak nahiko ondo moldatu ziren eta txalo mordoa jaso zituzten gerturatutako enaldetik. Saio guztian zehar gaurkotasuneko gaiak jorratu zituzten eta umorez betetako bertsoak ez ziren falta izan. Azterketak, oporrak, mundiala zein mugikorrak izan ziren bertsoetan azaldu ziren gai dibertigarri batzuk. Hala ere, AHT, euskal gatazka eta 36ko gerraren gisako gai serioagotan ere aritu ziren.

Lujanbio eta Iturriagari egokitu zitzaizkien gaietako bat oso



JOSETXO ARANTZABAL

Unai Iturriaga eta Sustrai Colina Monterrogo zapatuko saioan.

kuriosoa izan zen: goizean esnatu eta Lujanbio Iturriagaren gorputzean dago eta Iturriaga Lujanbioarenean. Gai irreal horrek algarra ugari eragin zituen publikoaren artean. Bestalde, Iratik eta Unai gustura jardun zuten kopletan. Kafe bat hartze-

**Bost bertsolariak
primeran aritu ziren
egokitutako gaien
inguruan**

ko geratu zen bikotea ziren eta mugikorretik zintzilik zegoen Unai. Primeran jardun zuen bikoteak gai horrekin.

Ekitaldira adin guztietako jendea hurbildu zen eta guztiak oso gustura irten ziren ikusi eta entzundakoarekin.

EZ DA ZORTE KONTUA

Mugitzeko ahalmena gutxituta duten pertsonentzako aparkalekua ez daiteke zorte kontua izan.

Boulevard dendagunean, aparkaleku sistema berria jarri dugu, toki gehiagorekin eta sarbide mugatuarekin...

Baina, funtzionatuko badu, zure laguntza behar dugu.



Jokin Intza jeltzaleak martitzenean aurkeztuko ditu memoriak, Bergaran. Venezuelan 15 urte egin zituen, erresistentzian lanean. EGI eta ELAko

buruzagi izan da eta gaur egun, 82 urterekin, Donostian bizi da. Zapatuan 43 urte bete ziren Bergaratik ihes egin zuela. Bizipenok jasotzen dituen liburua bihar

aurkeztuko dute, Jokinek berak eta Iñaki Anasagastik -haren lagun mina- osoko bilkuren aretoan. Sabino Arana Elkargoak argitaratu du, *Hombre libre. Sin patria libre* izenarekin.

JOKIN INTZA | IDAZLEA

"Venezuelakoak izan dira Euskadira diru gehien bidalitako euskaldunak"

Jon Bereziar

Urteurren berezia ospatu duzue asteburuan, ezta?

Hala da, zapatuan bete ziren 53 urte Bergarako etxetik irten nintzela polizia nire bila zetorrelako. Donostiatik etorri ziren eta ihes egin behar izan nuen 1953an.

Liburuan, hala ere, garai hori, aurrekoak zein ostekoak ekarri dituzu gogora.

1980. urtera bitarteko bizipenak jaso ditut. 366 bat orrialde ditu liburua, argazkiekin. Liburua hasten da Bergaran tropak sartzen hasi zirenean, 1936ko irailean eta nik garai hartan 10 urte nituen. Borroka kontuak 1942tik aurrera jasotzen ditut. Orduan egin nuen nire lehen lana. Zortzi gutun eman zizkidaten Bergaran botatzeko, euskaraz egin behar zela esaten.

Gaztetatik piztu zitzaizun Euskal Herriarengatik borroka egin beharreko kontzientzia?

Pobrezia handia zegoen orduan Bergaran. Beharra zegoen eta nik tuberkulosia ere izan nuen, gose handia zegoen, eta horrek pizten zigun borrokarako grina. Ama ere oso ume nintzelarik hil zitzaigun eta amandarearen etxera etorri nintzen Elgetatik Bergarara. Mutiko nintzela liburu asko irakurri nituen.

Talde klandestinoetan ere goiz hasi zinen ibiltzen.

Euzko Gaztedi hasi ginen lehenengo antolatzen, baina oraindik afiliatzeke.

Garai ilunak izan ziren haiek. Hasierako haiek izan ziren gogorrenak.


Oso garai ilunak izan ziren eta liburuan gauza asko isildu ditut, askori kalterik ez egitearren. Gauza politik egon ziren, baina gauza zatar asko ere bai. Gauzak kontatu bai, baina izenik ez dut ipini liburuan, senideak ez kaltetzeko.

Kartzelan egindako denbora garai ilun bezala gogoratuko duzu.

Hiru urte egin nituen kartzelan. 1947an Martutenera sartu ninduten beste lagun batzuekin eta gero ere Bilboko kartzelan egon nintzen. Lehenengo Euzko Gaztedikoa izateagatik sartu ninduten eta ostean paskin batzuk banatzeagatik.

Bizitzako une garrantzitsuak, hala ere, Venezuelan bizi zenituen. Han lan handia egin zenuten gauzak antolatzen, ezta?

Esan bezala, Euzko Gaztedirekin Bergaran hasi ginen, bai



ARTIBOIA

Erresistentzian, Euskal Herrian eta Venezuelan, egindako urteak jaso ditu Jokin Intza bergararrak liburuan.

na Venezuelan jarraitu zuen kontuak. Jende gazte eta jator asko elkartu ginen han. Euskara bultzatzeko borrokan hasi ginen lehenengo eta gure artean joko bat egiten genuen, gainera, nesketan ibiltzen ginenean. Kontua da neskekin euskaraz egitea sustatu gura genuela, eta erdaraz egiten entzuten genionak ardo botila pagatu behar zigun taldekoei. Bata besteari zaintzen ibiltzen ginen nesketan, eta denok jausi

ginen. Garai hartan Euzko Gaztediko lehendakari egin ninduten eta Venezuelan EGI sortu genuen. Handik Suitzako kontu batera bidaltzen genuen dira, Euskadira. Diru asko bidali genuen. Geroago euskal langileen arazotan hasi ginen lanean, ELAko lehendakari ere izan nintzen. Venezuela izan da Ameriketatik Euskadirendako diru gehien eman duen herrialdea, askogatik. Gaur egun sarritan entzuten dugu

han gosea dagoela, eta lagundu egin beharko genuke. Hango euskaldunek inongoek baino gehiago lagundu zuten bere garaian. Lehen Euskadiri lagundu bazioten, zergatik orain ez Euskaditik Venezuelara laguntasuna eman. Zor bat dago, eta bat baino gehiago haserretu egiten da hau entzunda, baina hala da.

Euskara beti izan da ardura handia zure bizitzan?

Euskararik gabe ez geneukan ezer ez. Gaur egun euskara askoz hobeto dagoela ikusten dut, baina, hala ere, gehiago egin beharko litzatekeela uste dut. **Orain 10 urte Berrigara astekarri egindako elkarrizketa baten esaten zenuen nahiago zenuela "abertzale bat euskaraz ez dakiena, hamar euskaldun abertzaleak ez direnak baino".**

Hala da, euskaraz jakinda benetako arerio bihur daiteke eta. Abertzale batek, euskaraz ez jakinda ere, ikasteko bidea beti izango du. Arerio espainolistek euskaraz jakinez gero gogorragoak izango lirateke Euskadiren aurka borrokan. Hor dago koska, nire iritziz.

Zer iritzi duzu egungo garaiez politikari dagokionez?

Itxaropena daukat, jendea badabil lanean. Gure alderdiko buruzagiekin, Ibarretxerengandik hasita, pozik nago. Abertzale zintzoak direla uste dut eta Euskadiri ona opa diotela, ahal dutena egiten dutela uste dut. Gizon azkarrak dira.

Itxaropentsu, hortaz?

ETAren su-etena ere ondo ikusten dut, uste dut haiek ere aurrera egin gura dutela eta gauzak konpondu. Arerioek, hala ere, betikoeke jarraitzen dute. ETak bidea ireki du, fede onarekin ari direla uste dut. Herri osoaren borondatearen aurka ezin dela arazoarekin amaitu konturatu dira. Iruditzen zait garai itxaropentsuak direla.

Zure liburuan ere memoriaren zati bat berreskuratuko da, belaunaldi berrientzat ere baliagarri dena.

Zergatik ez dakite oraingo gazteek? Inork ez dielako kontatu. Esandakoekin, hala ere, bat baino gehiago haserretu egingo zait, baina... Nik garbi hitz egiten dut eta liburuan nireak diren bizipenak jaso ditut.

"Euskaldun jator eta gazte asko elkartu ginen Venezuelan eta euskara bultzatzen genuen"

"Arerio espainolistek euskaraz eginez gero, are gogorragoak izango lirateke"

"Venezuelako euskaldunek beste inork baino gehiago lagundu zuten bere garaian, askogatik"

"Alderdian abertzale zintzoak dabilta lanean eta uste dut ahal dena egingo dutela"

Hamahiru musika eta antzerki saio dakartza aurten Musikaire jaialdiak

Elorrioko leku esanguratsuetan, uztaile bukaera arte asteburu guztietan izango dira kontzertuak eta antzezlanak

Leire Kortabarria

Hasi berri da Elorrioko Musikaire musika eta antzerki jaialdia, The Clientele pop-folk taldearen emanaldiarekin, zapatuan. Debagoiendarrak ere joaten dira jaialdi horretara, eta aurten ere izango dute non aukeratu, hasi besterik ez da egin-eta.

Beti bezala, emanaldiak aire zabalean eta Elorrioko eraikin eta leku esanguratsuetan izango dira.

DATORREN ASTEBURUAN

Hurrengo kontzertua ekainaren 24an, zapatuan, izango da, Euskal Kantu Liriko Berria proiektuarekin. Ganbara musi-

ka sustatu gura duten musikari gazte batzuek sortu zuten proiektu hori. Elizan izango da kontzertua, 22:30ean.

Ekaina bukatzeko, hilaren 30ean, egubakoitzean, *Psitt!! Psitt!!* delako dantza garaikide ikuskizuna egingo du Gelabert-Azzopardi Cia. talde katalanak. Hori parkingean izango da, 22:30ean. Asteburu berean, zapatuan, uztailearen leian, antzerki saioa izango da: *La barraca de Colón* antzezlan egingo du Valladolideko Teatro Corsario taldeak.

Emanaldiak egongo dira uztaile osoan.

EUSKAL HERRIKO LAU

Aurten, Euskal Herriko lau musikari edo talde daude jaialdian, tartean, Benito Lertxundi, uztailearen 2an. Baita Irlandako eta Italiako lagunekin folka egiten duen Balen Lopez de Munain bilbotarra ere.

Gainera, honako lekuetako taldeak datoz: Madril, Argentina, Katalunia, Italia, Errusia, eta Mexiko.

Argibide gehiago dago www.musikaire.com-en.


Hitzorduk

MARI CARMEN LASKURAIN BERGARARRAK 18 MARGOLAN DAUZKA ERAKUSKETAN ESPALOA ANTZOKIAN I

Mari Carmen Laskurain margolari bergararrak erakusketak dauka egunotan Elgetako Espaloia antzokian. Hantxe ikus daitezke bere 18 margolan. Paisaiak, loreak, natura hilak eta marinak dira bere gai gogokoak. Olioak margotzen ditu, eta margo figurati-boa egiten du.

Bakarkako zenbait erakusketak egindakoak da Laskurain: hala, 2001. urtean, Bergarako kultura etxean eta Nahikari tabernan erakutsi zituen lanok, eta 2005ean, Eibarko Topalekuan. Taldeko erakusketak baten parte hartzen du ere urtero. 17 urte daramatza margotzen.

Ekainaren 28ra arte dago zabalik erakusketak.



ZINEMA I

• **Las invasiones bárbaras** filma emango dute Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

MUSIKA I

• **Doctor Deseo eta Rafa Ruedaren kontzertua** Doctor Deseo taldeak eta Rafa Rueda bakarlariak kontzertua egingo dute hilaren 24an, zapatua, Monterron parkean, 23:30ean.

• **II. Gazte Egunean hainbat kontzertu egingo dituzte** Uztailearen leian, zapatua, Oñatiko II. Gazte Eguna ospatuko dute. Besteak beste, Oñatiko taldeek kontzertua egingo dute 17:00etan, eta kontzertu gehiago izango dira 20:00etan. Epai-ketei aurre egiteko 4 euroko dirulaguntzak eskatuko dituzte, eta borondatea.

ERAKUSKETAK I

• **Aste Zapatistaren barnean, artisautza erakusketak** Artisautza erakusketak antolatuko dute Aste Zapatistaren barnean. Kultura etxean dago ekain osoan.

• **Bingen de Pedoren margolanak ikusteko aukera** Bingen de Pedro margolari bergararrak erakusketak du Gasteizko Felisa Navarro aretoan (Zerkabarren 2), ekainaren 22ra arte. *Dulces ojos* du izenburua eta 20 lanek osatzen dute.

• **Baserritarren janzkera tipikoak ikusgai Eskoriatzan** *Herri janzkerak* izenburuarekin, baserritarren jantzi tipikoen erakusketak dago Inkernu tabernan uztailearen 1era arte.

IKASTAROKAK I

• **Arkeonet ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak** Internet bideko Arkeonet ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Ikerketa arkeologikoan gailentzen ari diren joera berrien gaineko ezagutzak ematea, eta arkeologia ikasleek jasotako kontzeptuetan sakontzea, horiek dira helburuak. Argibide gehiagorako: 943 21 23 69 edo arkeonet@asmoz.org.

• **Helduendako euskal dantzen ikastaroa** Helduendako euskal dantzen ikastaroa antolatzen dabil Aretxabaletako Loramendi. Interesa dutenek izena eman dezakete e-postaz (kultura@aretxabaleta.net) edo 943 71 10 27 telefonora deituta.

• **Gazteendako hiru ikastaro daude Arrasaten** Gazteendako capoeira, erromeriako dantza eta argazkigintza digital ikastaroak daude aukeran. Izenematea, Gazte Informazio Bulegoan (943 77 00 65).

• **Aramaioko Uda Ikastaroek zabalik dute izenematea** Aramaioko V. Uda Ikastaroetan izena eman daiteke 902

19 96 47 telefonoan. 1876-1914 garaia aztertuko dute aurten.

LEHIAKETAK I

• **Gomendatzen dizut...** lehiaketan parte har daitezke Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik behar-rakoendako, 300 euroko irteera bat.

• **III. Euskal Herriko grafiti lehiaketa antolatu dute** III. Euskal Herriko grafiti lehiaketa antolatu du Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak. Parte hartu gura dutenek marraztuko duten grafitiaren zirriborroa bidali behar dute Topagunera, honako helbidera: Arlozabal 8 bis, 1C. 48220 Abadiño (Bizkaia). Argibideak: 94 621 51 16 edo gazteak2@topagunea.com. 1.200 euroko hiru sari banatuko dituzte. Lanak bidaltzeko mugaeguna abuztuaren 31 da.

OHARRAK I

• **Ibarraundi museoak ordutegi berria dauka** Honako ordutegia du Ibarraundi museoak: aste-gunetan, 09:00-14:00; jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Labur

Goikobaluko hiru taldek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute

Goikobaluko Izartxoak, Txiki eta Gazte taldeek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute. San Juan Bataiatzailearen parrokian egingo dute emanaldia etzi, eguaztena, 20:00etan. Euskal abesti asko kantatuko dituzte, baita hiru kanta afrikar ere, eta *Eratzunen Jauna* filmeko abestia. Kontzertuaren ondoren, afari-merienda egingo dute Goizalde kafetegian.

Goikobaluko hiru talde gazteenak dira horiek: denetara, 6tik 18ra urte bitarteko ume eta gaztetxoak arituko dira.

Beart elkarteko ikasle gaztetxoek lanen erakusketak ipini dute

Bergarako Beart arte elkarteko ikasle gaztetxoek urtean zehar egindako lana erakusten dihardute. Hala, euren lanen erakusketak ipini dute Masterreka kaleko Nahikari tabernan. Hain zuzen, uztailearen 9ra arte egongo da zabalik erakusketak.

Bestalde, urtero bezala, 5-13 urte bitartekoendako margo eta marrazki ikastaroa antolatu du Beart-ek uztaile goizetarako. Izenematea zabalik dago honako telefonoetan: 665 70 31 75 (Oihana) edo 653 71 53 82 (Mayra).

Aretxabaletako Andra Mari jaietako irudi lehiaketa antolatu dute

Andra Mari jaiak iragartzeko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura Batzordeak. 50 x 70 cm-ko kartelak behar dituzte, honako testuarekin: *Andramaixak 2006, Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta*.

Irudiak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira kultura etxean edo udaletxean, eta uztailearen 7an jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia. Irabazlearendako 300 euroko saria egongo da.

Eguraldia



Temperatura freskoagoak eta euria izango dira asteko protagonistak

Lainotsu esnatuko da eguna, baina goizak aurrera egin ahal urdinguneak zabalduko dira. Arratsalde aldera egehitu gingo dira berriz lainoak eta euria egingo du. Temperatura 23-25 graduren bueltan ibiliko da. Bihar, martitzena, euritsua izango da, zaparrada nahikotxo botako ditu, baina arratsalde

parte urdinguneren bat edo beste ikusteko aukera izango dugu. Eguaztenean jaso egingo du berriz eguraldiak eta euri gutxiago egingo du. Eguenean ere antzerako eguraldia izango dugu, baina poliki-poliki zerua zabaltzen joango da. Eta egubakoitzean gora egingo du berriz tenperaturak.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 19	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Martitzena, 20	Ruiz Perez	Maalako Errabala, 31 (943 79 14 09)
Eguaztena, 21	Zabala	Zaruqalde, 42 (943 77 16 30)
Eguena, 22	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Egubakoitza, 23	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)

BERGARA

Astelehena, 19	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Martitzena, 20	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguaztena, 21	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Eguena, 22	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Egubakoitza, 23	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)

OÑATI

Astelehena, 19	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 20	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguaztena, 21	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguena, 22	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Egubakoitza, 23	Barrenetxea	Kale BZaharra, 1 (943 78 01 22)

ARETXABALETA

Astelehena, 19	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 20	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 21	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 22	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 23	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 12
1 • 14 • 15 • 22 • 32 • 38
 Osagarria: 29 | Itzulketa: 0

Martitzena, 13
11 • 14 • 15 • 21 • 40 • 42
 Osagarria: 36 | Itzulketa: 9

Eguaztena, 14
1 • 3 • 12 • 23 • 34 • 43
 Osagarria: 36 | Itzulketa: 1

Egubakoitza, 16
2 • 15 • 20 • 21 • 25 • 37
 Osagarria: 46 | Itzulketa: 9

ONCE

Astelehena, 12 **79.419**

Martitzena, 13 **82.693**

Eguaztena, 14 **43.500**

Eguena, 15 **72.446**

Egubakoitza, 16 **27.893**

Kupoitzarra (071 seriea)

Domeka 18 **52.159**

Kupoitzarra (039 seriea)

LOTERIA PRIMITIBA

Eguena, 15
3 • 5 • 10 • 13 • 25 • 43
 Osagarria: 16 | Itzulketa: 5

Zapatua, 17
9 • 10 • 15 • 21 • 25 • 49
 Osagarria: 4 | Itzulketa: 2

Zapatua, 17 (Saritzarra)
7 • 11 • 34 • 39 • 49
 Itzulketa: 0

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

- **Atzerrian ikasketak.** Eusko Jaurlaritzaren Atzerriko Ikasketak egiteko bekak, EA Erentzat interesgarriak diren gaitan espezializatzeko. Epea: uztaialak 9.

LEHIAKETAK |

- **Argazkilaritza.** Elgoibarko Udala; Ongarri taldea. Kirol argazkilaritzari buruzko I. lehiaketa Elgoibarren. Epea: uztaialak 27.
- **SMSak.** UEMA. *Esaiozu ezetz* gaiaren inguruko euskarazko mezuen lehiaketa. Epea: ekainak 30.
- **Bertso-paperak.** Argi Berri elkarteak. Argi Berri elkarteak XV. Lazkao Txiki Bertso-paper Lehiaketa antolatuta du. Mailak: gaztetxoak (<13), gazteak (14-18) eta helduak (>18). Epea: uztaialak 1.

LANA |

- **Euskara Teknikaria.** Aretxabaletako Udala. Euskara teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: ekainak 29.
- **Administraria.** Azkoitiko Udala. Errenta eta diru-bilketako administrari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: ekainak 20.
- **Errenta teknikaria.** Bergarako Udala. Aldi baterako errenta teknikaria, lan jardun erdiarekin, oposizio bidez kontratatutako prozesua. Epea: ekainak 23.
- **Udaltzain laguntzaileak.** Errenterriako Udala. Jaietarako udaltzain laguntzaileen kontratazioa, uztaialaren 21etik 25era. Baldintzak: Errenterrian erroldatuta egotea eta langabezian egotea edo ikaslea izatea. Epea: ekainak 21.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
 Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
 gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
 Kultura etxea. 943 77 91 57
 gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
 Foruen plaza 4. 943 71 82 57
 gazteinformazioa@oinati.net



Bertan salgai

ASTELEHENKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Irene Aguriondo
Ekainaren 12an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoen partetik.



ARRASATE
Julen Mendarozketa
Ekainaren 14an, 9 urte. Zorionak! Sanvi Txikikoak.



ARRASATE
Oier Etxebeste
Ekainaren 19an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARRASATE
Oier Gonzalez
Ekainaren 20an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoen partetik.



ARRASATE
Max Eddleston Ormaetxea
Ekainaren 21ean, 7 urte. Zorionak! Lukeneren partetik.



ARRASATE
Aritz Arizmendiarieta
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak! Sanvi Txikikoak.



BERGARA
Maddi Goenaqa
Ekainaren 11n, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak eta Itsaso.



BERGARA
Luka Carmona
Ekainaren 14an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik!



BERGARA
Maddi Oregi
Ekainaren 18an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik!



BERGARA
Jon Gantxegi
Ekainaren 20an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako. Lagunak eta etxekoak.



BERGARA
Omer Garcia
Ekainaren 21ean, 12 urte. Zorionak. Nora, Maddi eta etxekoak.



BERGARA
Xabier Igartza
Ekainaren 22an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako. Mikel eta gurasoak.



BERGARA
Mikel Moñux
Ekainaren 26an, 5 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



ARETXABAETA
Josu Irure
Ekainaren 20an, 8 urte. Zorionak, pirata! Alaitz, Eñaut, Manex eta Monika.



ESKORIATZA
Iker Fernandez
Ekainaren 18an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat. Arreba June eta etxekoak.



Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.


Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

ARRASATE IRRATIA

Hildakoak

Lucia Uribarren Altuna | Gasteizen, ekainaren 16an. 86 urte.



ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIA-N

85 euro
943 25 05 02

Jaiotakoak



Sara Lopez de Arkaute Carrasco
Arrasate • 4.430 kg. Maiatzaren 28an. Gurasoak: Mariu (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian umea lo.



Ander Kabue Ruiz de Azua
Arrasate • 4.220 kg. Hilaren 12a. Gurasoak: Edurne (Arrasate) eta Xabier (Azpeitia). Argazkian Ander bapo lo.



Xabier Otxoa Gorritxategi
Elgeta • 3.350 kg. Hilaren 12a. Gurasoak: Arantza (Zaldibar) eta Juan Mari (Elgeta). Argazkian Xabier kuman.



Ander Sarasua Zeberio
Elgeta • 3.410 kg. Hilaren 13a. Gurasoak: Larratiz (Irun) eta Etor (Elgeta). Argazkian Ander aitarekin eta amarekin.



Ainhoa Zubizarreta Elortza
Oñati. Hilaren 14a. Gurasoak: Garbiñe (Oñati) eta Iñaki (Aramaio). Argazkian Jon eta Antxon anaiak eta ama Ainhoarekin.



Danel Izurrategi Gomez
Arrasate • 2.960 kg. Hilaren 16a. Gurasoak: Esther (Arrasate) eta Gorka (Arrasate). Argazkian gurasoekin.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

Araba Euskaraz

Ohi baino laburragoa da gaurko irratsaioa. Nerea Zubietek albisteen berri emango digu eta ondoren Isidro Elortza aramaioarra elkarrizketatuko du. Elortza Armentia Ikastolan dabil eta Araba Euskaraz festaren lehen balorazioa egingo digu.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:10

Ganbara abesbatzari errekonozimendua

Oñatiko Udalak Ganbara abesbatzari errekonozimendu ekitaldia eskaini zion egubakoitzean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ekitaldian Miren Urkiolak jasotako adierazpenak eskainiko dituzte gaur eguerdiko irratsaioan.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:15

Papergintza krisian, Tolosan

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 08:00

Kataluniatik saio berezia Xabier Lapitzen eskutik

Herri Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

Oñatiko Pake-Leku erretiratuen elkarte

GOITB programazioa

Astelehena, 19



Debagoieneko albistekak 22:15

Bailarako albistekak jarraitzeko aukera izango duzue egunero GOITBko albistegietan. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo aurkezleen eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo: Txotxongilo Mostra.
- 14:15 Elitze beroa: Limoi tarta.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Yemen
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean. Amuriza
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu. Manex Agirre.
- 17:30 Zera dio. Txaro Arteaga / Olano.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Sustraiak.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Behazulo. Txotxongilo mostra.
- 19:45 Berriak. Deiane Arrieta.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak. Goiatz Arana.
- 21:15 Harmailatik. Oñatiko herri lasterketa.
- 21:45 Berriak
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak
- 23:15 Jazz
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 20



'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15

Iban Arantzabal aurkezlearekin batera (argazkian), Ander Rodriguez, Aitor Arantzabal eta Ander Elortondo ariuko dira berbetan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak. Card.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik. Oñatiko herri lasterketa.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 M2. Danbaka-Ozen.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea. Yoga
- 18:15 Munduari bueltaka-Yemen.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Albistekak. Julen Iriondo.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ilunpean. Xabier Amuriza.
- 21:45 Albistekak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albistekak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 21



Victoriano Gallastegi 'Debarri'-n 21:47

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea elkarrizketatuko du Alberto Gorritibereak. Ikus-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 M2.Danbaka. Ozen
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraiak.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu. Manex Agirre.
- 19:45 Albistekak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Debarri. Victoriano Gallastegi.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea. Yoga
- 23:45 Albistekak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 22



Deiane Arrieta 'Didjeridu' saioan 22:15

Deiane Arrieta gertutik ezagutzeko aukera, Amagoia Lasagabasterren eskutik. Mendiolan izan dira berbetan GOITBko lankideak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea: Yoga.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraiak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri. Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:45 Iparrorratza. Irak.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albistekak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustraiak.
- 21:45 Albistekak.
- 22:15 Didjeridu: Deiane Arrieta.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Albistekak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 23



'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin 21:15

Oraingo astean ere debagoien-darroi eragiten dizkiguten hainbat gai plazaratuko dituzte Goiatz Arana kazeriak aurkezturiko saioan.

- 13:00 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albistekak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albistekak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:30 Zera dio
- 23:45 Berriak.

Kamera aurrean



"Bai Ezker Batuak eta bai Aralarrek aztertu egin beharko dute hauteskundeetara batera joateko aukera"

JOSEBA UGALDE | EZKER BATUKO ZINEGOTZIA ARRASATEN Berriak, 2006-06-13



"Ekaina eta uztaila bero itogarriekin eta Santiagotik aurrera haize aldakorra eta ekaitzak tarteka"

PELLO ZABALA | EGURALDI ADITUA Berriak, 2006-06-13

Oñatiko herri lasterketa

HARMAILATIK

Gaur, astelehena, 21:15ean Julen Iriondok aurkeztuta



Ikustekoa!

Ekainaren 19a: 091 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 19, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**


Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Intz Bengoa (Arrasate)
- Jazinto Ziarsolo Alberdi (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Mila Akixu Gaztañaga (Aretxabaleta)
- Jaione Barrena Egaña (Oñati)

Ekainaren 26ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DONOSTIAKO AQUARIUMa
bisitatzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

ESTEBAN URTZELAI | GANBARA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

"Afalosteko kantuan lagunek tonua zaintzeko agintzen didate, txantxetan"

Jon Berezibar

1. Harritu egiten da jendea zu, hain gazte, abesbatza bat zuzentzen ikusita? Gero eta jende gazte gehiago dabil abesbatzetan, 20-30 urte bitartean batez ere. Abesbatzen irudia aldatzen dabil eta gero eta talde gehiago dago.

2. Zer dela eta sartu zinen 17 urterekin abesbatzan? Txikitatik hasi gara gu, 7-8 urterekin, eta ahotsa aldatzerakoan herriko abesbatzara sartu ginen. Ganbara 15 urte nituela sortu zen.

3. 27 urterekin eta dagoeneko omenaldiak jasotzen. Zahar sentitzen zara? Abesbatzaren lorpenengatik egindako harrera izan zen gehienbat. Batik bat apirilean Eslovenian lortutako sariarengatik.

4. Abesbatza asko dago Oñatin. Harrobi ona da? Aspaldidanik egon da ohitura Oñatin. Orain dela 10 urte hasi ginenean beste abesbatza baten modura hasi ginen eta dagoeneko, haur eta guzti, 120 lagun gabiltza. Ez da zifra batere makala.

5. Nola erakartzen da hainbeste jende gazte ahots-musikara? Mundu honetan txikitatik hasia da garrantzitsua. Horregatik sortu genuen Ganbara Txiki taldea, txikitatik ilusioa eta zaletasuna lortzeko.

6. Gorpuzti jaiak gustuko dituzu? Oñatiko jairik originaletakoak dira eta asko gustatzen zaizkit. Txistularia ere banaiz eta oso gertutik bizi ditut ospakizunok. Biharamun apurtxo batekin, baina ilusioa egiten du.

7. San Juanak ere gertu, aurtengo zer botako duzu sutara? Ez naiz horrelako ohituren zale. Aurtengoa urte bikaina izan da eta hobe izatea espero dugu. Gauza txarrak ahaztu eta onak hartu.

8. Abesbatza, txistua, musika... Bizilagunak pozik? Horri dagokionez zortea daukat, baserrian bizi naiz-eta.

9. Lagunen afarietan ere zu ipintzen zaituzte afarian? Zuzentzen hasteko jotzen didate adarra beti, tonua-eta zaintzen has-



JOSETXO ARANTZABAL

Txistulari jantzia soinean harrapatu genuen atzo, domeka, Esteban, baina bestelako saltsetan ere aski ezaquna da. Zapatuan bertan Ganbara abesbatzarekin egindako lana eskertu zioten. 27 urte ditu eta orain dela hamar hasi zen abesbatzan. Ganbarakoen azken lorpena Esloveniako nazioarteko kantu txapelketan eskuratutako laugarren postua izan da.

teko. *Katxondeo* pittin bat izaten dugu.

10. Ahotza asko zaintzen duzu? Beharko litzatekeena baino gutxiago, baina zertxobait bai.

Kontzertuak gertu daudenean, batez ere, kasu apurtxo bat egin behar zaio eztarriari. Inbidia handia ematen didate eztarria hain erraz kaltetzen ez zaien horiek, batez ere parranda ostean igartzen ez dutenek.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Sagasti Antzuolarentzat

Ohelagunak esan dit mundialaz berba egiteko "Carod Rovirak Poloniaren alde" egiten duela esan duelako "kataluniarrei poloniar deitzen dietela-eta". Nik nire artean "zela jardungo dut mundialaz kasurik egiten ez badiot eta kuriositatea piztu didan bakarra Holandako emakume talde batek mundialaren kontra sortu duen webgunea bada". Dena dela gaurko egunean ERCko lehendakariaren buruhausterik txikiena izango da Polonia hurrengo faseara sailkatu den ala ez.

Polonia ez da sailkatu eta Margallek ere ez du lortu Kataluniako estatutuarentzat gurako lukeen besteko puntuazioa. Kataluniar asko hondartzara joan omen ziren. Ni, berriz, Armentiako ikastolaren jaira. Araba Euskaraz hasiera ekitaldian entzundako diskurtso-rik onena Gasteizko alkate orde Miguel Angel Echevarria popularrarena izan zen. Bada marka gero.

Eta, marka guztiak apurtu ditu Gernikan, egin duten Astra Korrika ekimenak. Arma enpresa izan zen bere egunean eta Gabonetan herriko gazteek okupatu egin zuten. Helburua herriarentzako kulturune dinamiko bat egitea. Udalak azkenean eraikina erosi du, kultur ekitaldiak eta bestelakoak gauzatzeko. Astra Gernikentzako dio "Zu barik ez dau ongiotz". Antzuolako Sagastin zer egin eztabaida bultzatu nahian ari dira. Hori da bidea, elkarriketa, eztabaida, parte hartzea. Duela urte batzuk ere egin zen herrian, Udalak bultzatuta, kultur etxearen gaineko herri eztabaida. Hura ezetan geratu zen, baina, orain aukera berri bat dago.



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE

AROTZEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

